

# **DECROLYREN PEDAGOGIAREN GAUREGUNEKOTASUNA**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

**Egilea: Celada Minguez, Asier**

**Zuzendaria: Longarte Arriola, Joseba Jon**

**2021**

## LABURPENA

Lehen Hezkuntzako graduan zehar ezagututako pedagogo sortzaileen errebaso orokor bat bideratzea izan zen lan honen abiapuntua. Hainbat pedagogo berritzaile aztertu ondoren, Ovide Decroly aukeratzea erabaki zen nire irakasle ikusmoldearekin bat egiten duelako eta gaur egun berriro ere izugarritzko garrantzia hartzen ari delako. Gradu Amaierako Lan honen bitartez, hezkuntza munduan Ovide Decrolyk utzitako ondarea ezagutzeko aukera izango dugu, ikaskuntza tradizionala alde batera uzten duena, ikasleen interesetan oinarritutako ikaskuntzatik abiatzen dena, eta ikaslea protagonista izatea bultzatzen duena. Decrolyren printzipioak aztertu ondoren, bere ideietan oinarritutako proposamen didaktiko eguneratu bat burutuko dugu, non natura bera eskola bihurtzen den.

**Hitz gakoak:** Decroly, natura, ikasleen protagonismoa, ikaskuntza esanguratsua, programazio berritzailea.

## RESUMEN

El punto de partida de este trabajo fue canalizar un repaso general de los pedagogos creativos conocidos a lo largo del grado de Educación Primaria. Tras analizar a varios pedagogos innovadores, decidí elegir a Ovide Decroly porque comparte mi concepción de profesor y hoy vuelve a adquirir una enorme importancia en la educación. A través de este Trabajo de Fin de Grado, tendremos la oportunidad de conocer el legado de Ovide Decroly en el ámbito educativo, que deja a un lado el aprendizaje tradicional, parte del aprendizaje basado en los intereses de los alumnos, y que impulsa que el alumno sea el protagonista. Tras analizar los principios de Decroly, llevaremos a cabo una propuesta didáctica actualizada basada en sus ideas, en la que la propia naturaleza se convierte en escuela.

**Palabras clave:** Decroly, naturaleza, protagonismo del alumnado, aprendizaje significativo, programación innovadora.

# AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA	5
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. BIOGRAFIA	6
3.2. ESKOLA BERRIAREN TESTUINGURUA	7
3.3. DECROLYREN IDEIAK ETA PRINTZIPIOAK	9
3.3.1. "IDEIA ELKARTUAK" PROGRAMA	11
3.3.2. "INTERESGUNE" METODOA	13
3.3.3. GLOBALIZAZIOA, ESKOLA-IKASKUNTZAREN OINARRIA	15
3.3.4. IRAKURKETA ETA IDAZKETAREN LANKETA	16
3.3.5. EBALUAZIOA	17
4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: BASERRI-ESKOLA!	19
4.1. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA	19
4.2. PROPOSAMENAREN ARAZO-EGOERA	20
4.3. KONPETENTZIAK	22
4.4. EDUKIAK	24
4.5. HELBURU DIDAKTIKOAK	24
4.6. EBALUAZIOA	25
4.7. SAIOEN SEKUENTZIA	26
5. ONDORIOAK	43
6. ERREFERENTZIAK	47
7. ERANSKINAK	49

## 1. SARRERA

Historian zehar hezkuntzak garrantzi handia izan du gizartean, metodologia eta ikaskuntza prozesu ezberdinak garatu dira eta urteak pasa ahala etengabeko aldaketak egin dira haurren heziketa eta garapena hobetzeko. Horrekin batera, pedagogoko ugari pasa dira hezkuntza mundutik, bakoitzak bere printzipio eta helburuekin ikasleen ikaskuntza aberasgarriagoa eta esanguratsua izaten laguntzeko.

Pedagogia irakaskuntzaren oinarria da. Pedagogoko bakoitzak bere metodoak garatzen ditu saioak aurrera eramateko eta ikasleak heztea eta gaitasunak hobetzea izango dira helburu nagusiak. Irakasteko eredu tradizionala ezaguna dugu, non irakaslea den ezagutza transmititzen duena eta ikasleak, aldiz, informazio horren hartzaileak diren. Ikasleek orokorrean entzulearen papera izan dute, eta ikaskuntza prozesuan bigarren plano batean egon dira, irakaslearen nagusitasunaren atzean (Olalde, 2013).

Gaur egun, zorionez, hezkuntza sisteman aldaketa nabarmenak ematen ari dira, eta eredu tradizionala alde batera uzteko urratsak ematen ari dira, ikasleen parte hartze aktiboa nabarmenduz eta prozesuaren protagonistak bihurtuz. Irakaslearen rola eraldatu egiten ari da eta gidari bezala lan egiten du, ikasleak lagunduz gaitasunak eta helburuak lortzeko.

Irakaskuntza aberasgarria izateko eta haurren errendimendu altuena lortzeko ikasleak entzutea, haien beharrak ezagutzea, motibatzea, ekintza praktikoak burutzea eta bizitzarekin erlaxionatuta sentitzea beharrezkoa izango da. Modu horretan, ikaskuntza positiboa izango da eta aktiboki lan egiten ikasiko du ikasleak (Patiño, 2007).

Gradu Amaierako Lan honen bitartez Ovide Decroly pedagogokoaren printzipio eta ezaugarri nagusienak aztertuko ditugu, Eskola Berriaren adierazle nagusietako bat izan zena eta hezkuntzan eragin handia izan duena gaur egun arte. Decrolyren ideiak ezagututa, bere printzipioetan oinarritutako proposamen-didaktiko eguneratu bat planteatuko dugu Lehen Hezkuntzako ikasleekin lantzeko. Pedagogoko honen ustez, ikaskuntzak bizitzarekin eta naturarekin erlaxioan egon beharko du, hori dela eta, ikasleen interesetatik abiatuta, baserri-eskola batera joateko txango bat prestatutuko dute ikasleek, ez ohiko ingurua aztertzeko eta naturatik esperientzia berriak bizitzeko. Modu horretan, Sastarraingo baserri-eskolan ekintza ezberdinak garatuko dituzte inguru hauetaz gehiago ikasteko eta naturarekin lotutako bizipen berriak izateko.

Lan hau hiru ataletan bereizita egongo da. Alde batetik, Ovide Decrolyren ideiak aztertuko ditugu bere pedagogiaren nondik norakoak ezagutzeko; beste aldetik, ikasleen interesetatik

sortutako proposamen didaktikoa aurkeztuko dugu landuko diren jarduera guztiak azalduz; eta amaitzeko, ondorio bezala, gaur egun pedagogo honen ideiek duten presentzia azpimarratuko dugu hainbat albistetan aurkitutako informazioari esker.

## **2. JUSTIFIKAZIOA**

Gradu Amaierako Lan hau Lehen Hezkuntzako gradu lanik garrantzitsuenaren izan dela esango nuke, bai garatu aurretik izan dudana prestakuntzagatik eta ondoren egindako lanagatik. Lan hau burutzeko pedagogo sortzaile bat aukeratu behar izan nuen baina ez zen izan batere erraza hezkuntza munduan pedagogo interesgarri asko egon direlako: Maria Montessori, Howard Gardner edo Celestin Freinet, beste askoren artean. Azkenean, informazio-iturri asko irakurri ondoren, nire ideiekin bat egiten zuen pedagogo bat aukeratu nuen: Ovide Decroly.

Aukeraketa zaila izan arren, bere printzipioak eta hezkuntzan izandako inpaktua ezagutzeko, lan honetan garatzea ezinbestekoa ikusten nuen eta autore honen pedagogia aztertzearekin nion. Historian zehar, irakaskuntza tradizionalak eragin handia izan du eta gizarteko ispilua izan da, non pertsona nagusi bat dagoen eta bere menpean gainerakoak bizi diren. Planteatzen zen ereduak aldaketak eskatzen zituen, metodologia berria beharrezkoa zen haurren garapena hobetzeko eta hezkuntzan ikasleek beste rol aktiboago bat izateko. Irakaskuntzan, ikasleen interesak entzutea eta kontuan hartzea beharrezkoa da, haien beharretatik ekintzak garatzeko eta bakoitzaren zailtasunak gainditzeko. Ikasleak motibatuta izan behar ditugu, prozesua erosoagoa izateko eta ikastetxera ilusio handiz joateko, horrela emango da ikaskuntza esanguratsua, eta ikasleek gehiago disfrutatuko dute lantzen diren ekintzekin.

Horrez gain, ez dugu ahaztu behar ikasleak garatzen ari diren pertsonak direla, bizitzarako prestatu behar dira eta errealitateko egoeretatik ikastea oso aberasgarria izango da ikaskuntzari zentzua emateko. Horrekin batera, hezkuntza ez da bakarrik gela barruan garatzen, naturako inguru berriak ezagutu behar ditugu, ikasleek esperimendatzeko eta hauetatik ezagutza berriak izateko. Aukera ederra izango dute naturatik ikasteko, eta gaur egun, geroz eta gehiago garatzen ari den ikaskuntza da, haurren onura sozialak, fisikoak eta psikikoak hobetzen laguntzen dutelako (Muriana, 2021).

Ovide Decrolyk argi zuen ikaskuntzaren oinarria ikaslea zela, eta haien beharretara egokitu behar zela prozesua aberatsa izateko. Aurrerago garatuko diren printzipioekin bat egiten dut, ikuspuntu berdina daukat bere pedagogiarekiko eta ikaskuntza esanguratsua lortzeko ezaugarri egokiak lantzen dituela uste dut, hori dela eta, Decroly aukeratu nuen lan hau

garatzeko. Lan honen bitartez, pedagogo honek garatutako metodologia aztertuko dugu eta bere printzipioetan oinarritutako proposamen-didaktikoa garatuko dugu, gaur egun indarrean jarraitzen duena.

### **3. MARKO TEORIKOA**

#### **3.1. BIOGRAFIA**

Ovide-Jean Decroly Belgikako Renaix hirian 1871ea jaio eta 61 urterekin hil zen sendagile, psikologo eta hezitzaile famatua da, hezkuntza munduan klasiko bihurtu dena eta oso esanguratsua izan dena izandako ideia eta ekarpenei esker.

Bere ikasketak Ganteko Unibertsitatean hasi zituen medikuntza ikasten, eta doktoregoko ezohiko saria irabazi zuenean, Parisen eta Berlinen garuneko patologiarri buruzko ikasketak eta ikerketak burutzen aritu zen, psikiatria eta neurologiaren inguruan, hain zuzen ere. Bruselara bueltatzean, Glorieux doktorearen poliklinikan bere laguntzailea izan zen, eta bertan izandako esperientziaren ondorioz, adimen-urritasuna duten haurrentzako hezkuntza-erakunde bat sortu zuen ikasle hauen berreziketa gauzatzeko. Modu horretan, 1901.urtean "Hezkuntza Bereziko Institutua" sortu zuen, ikasteko zailtasun handiak edo ezgaitasunak dituzten haurrak hezteko eta aztertzeko helburuarekin (Agreda, 2005).

Lehenengo urteetan haur hauekin izandako hezkuntza-arrakasta ikusita, iraultza pedagogikoa hasteko asmoa piztu zitzaion, eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiei zuzendutako "L'Ermitage Eskola" sortu zuen 1907an, "bizitzarako eta bizitzaren bidezko eskola" lemarekin 6 eta 12 urte bitarteko ikasleak hezteko.

I.Mundu Gerrak eragindako suntsipenaren ondorioz, hezkuntza zerbitzua bertan behera gelditu zen arren, gudak sortutako umezurtzei babesa eskaintzen jarraitu zuen, eta 1905ean Bruselan Umezurtzaren Etxea ireki zuen.

Hezkuntzarekin kontaktu zuzenean egonda, 1906ean Brabanteko Haur Eleberrientzako Institutuko zuzendari izendatu zuten, eta horrez gain, Britainia Handiko aztertzaile bezala aritu zen Haurtzaro Delitugiletarako ikerketan.

Decroly unibertsitatean eta ikerketa lanetan ere aritu zen hainbat urtez, bertan, Hezkuntza Bereziari, Haurraren Psikologiari eta Osasun Mediku Psikologiari buruzko gaiak irakatsi zituen, ospe handia hartu irabaziz eta bere irakas-metodoa sortuz. 1922an, Ameriketako Estatu Batuetara joan zen hango mugimendu berritzailea ezagutzera, eta garai hartako psikologoekin lanean aritu zen test psikologikoen eraikuntza arloan.

Ovide Decroly Belgikan igaro zituen bere bizitza profesionaleko lehenengo urteak, eta kokapen geografiko horrek, gizartearen pentsamenduan bezala, eragina izan zuen haren ideia eta printzipioak garatzeko. XIX.mendearen amaiera eta XX.mendearen hasiera artean, Europan aldaketa ugari gertatu ziren, horien artean, burgesiaren finkapena zeregin erabakigarria izan zen, eta ekonomian hedapen handia eman zen merkataritzaren areagotzearen nahiz aurrerapen teknikoaren ondorioz. Belgika oso kaltetua geratu zen bizi izandako gerren ondorioz, Lehen Mundu Gerra (1914-1918), Sobietar Iraultza (1917) eta batez ere, Bigarren Mundu Gerran sortutako alderdi totalitarioen ondorioz (faxismoa eta nazismoa). Hori dela eta, garai hartako gizartean marxismoa, positibismoa, errealismoa eta eboluzionismoa nabarmentzen hasi ziren, egoera horrek behar zuen aldaketak aurrera eramateko oso eraginkorrak izan zirenak (Narváez, 2006).

Sasoi hartako gatazka egoera amaituta, Decrolyk garatutako metodo pedagogikoa Belgika osoan zabaltzen hasi zen, eta bertako eskola publikoetan ofizialtasunez ezartzera iritsi zen, ondoren beste herrialdeetan indarra hartuz. Ovide-Jean Decroly “Eskola Berria” izeneko mugimenduaren adierazle garrantzitsuetako bat izan zen, eta eskolaren ikuspuntua eta helburuak aldatzeko lan handia egin zuen, ikaslea ikaskuntza-prozesuaren protagonista izateko, eta irakaslea prozesuaren gidaria. Modu horretan, hezkuntzan aldaketa nabarmenak egiten hasi ziren, eta hainbat pedagogo garrantzitsuk metodo aktiboak garatzen hasi ziren, hurrengo hamarkadetan eragin handia izan zutenak, eta gaur egun ere garrantzi handikoak direnak (Dubreux-Chopix, Fortuny, Van Gorp, Simon eta Depaepe, 2006).

Bizipen eta esperientzia berriek Decrolyren ezagutza-maila handiagoa izatea ahalbidetu zuten eta hainbat obra egitera animatu zen, mundu mailan oso ezagunak izan direnak. Hauen artean, honakoak izan dira esanguratsuenak:

- La medida de la inteligencia del niño (1907).
- Hechos de psicología individual y la psicología experimental (1908).
- El tratamiento y educación de los niños deficientes (1915).
- La libertad de la educación (1925).
- El Doctor Decroly en Colombia (1932).

### **3.2. ESKOLA BERRIAREN TESTUINGURUA**

Esan bezala, Decroly Eskola Berriko adierazle nagusietako bat izan zen, eta bere ideiak zein helburuak ondo ulertzeko, beharrezkoa da mugimendu honen testuingurua ulertzea, bere ideiekin bat egiten dutenak. XIX.mendeko azken urteetan Europako eta beste herrialdeetako pedagogoen hezkuntza-sistema tradizionalan aldaketak egiteko beharra ikusi zuten, eta honen inguruko kritikak nahiz pentsamendu ezberdinak garatu ziren,

heziketaren egoera aldatzeko eta ikasleen ikaskuntzan gehiago oinarritzeko. Formalismoan, memorizazioan, autoritarismoan eta diziplinan oinarritutako pedagogiaren aurka, hezkuntza berria eta aktiboaren alde aldarrikatzen da, haurraren interes espontaneoetan oinarritzen da eta ikasleen jarduera, sortzeko askatasuna eta autonomia garatzea bultzatzen da (Palacios,1978).

Eskolako arazoei aurre egitea eta metodologia tradizionala (irakaslea eta programa) alde batera uztea bilatzen zen, eta mugimendu berri honen helburu nagusietako bat ikaslea prozesu didaktikoaren ardatza bihurtzea zen, momentura arte bigarren plano batean egon zena irakaslearen nagusitasuna eta autoritatearen ondorioz. Agredaren esanetan (2005), lehenengo eskola berriak Ingalaterran sortu ziren, eta denboraren poderioz beste herrialdeetan garatzen hasi ziren, hala nola, Belgikan, Alemanian, Frantzia eta Italian, bereziki.

Mugimendu berritzaile honetan, hainbat autore lanean aritu ziren arren (Key, Claparède eta Cousinet, besteak beste), Maria Montessori eta Ovide Decroly ditugu esanguratsuenak. Mugimendua behar bezala koordinatzeko, 1921.urtean Calaisen (Frantzia) “Ligue International pour l’Education Nouvelle” sortu zuten, Eskola Berriaren irizpide eta orientazio berritzaileak garatzeko helburuarekin, eta lehenengo hamarkadan, eragin handia izan zuen Mendebaldeko hezkuntza-sisteman ezarritako oinarri pedagogiko berritzaileak (Agreda, 2005).

Eskola Berria bizitzarekin harremanetan egon behar da, ikasleak bizitzarako ikasten du, egunerokotasuneko egoerei edo zailtasunei aurre egiteko, ez eskolaren mesederako. Hori dela eta, ikastetxea dinamikoa eta eraginkorra izan behar da, eta haurren beharretara egokitzeko gaitasuna izan beharko du, modu horretan, eskolak ikasleen interesak kontuan hartu beharko ditu eta hauetan oinarritu beharko da programazioa garatzerako orduan. Bestalde, eskolak aktiboa izan behar du, hau da, ikasleen autonomia eta jarduera bultzatu beharko du, ikaslea gelaren barruan garrantzitsua sentitu behar da, eta irakaslearen zeregina bigarren maila batean geratuko da. Irakaslearen papera aldatzea bilatzen denez, laguntzaile eta ikuslearen rola hartuko du, eta formakuntza hobea beharko du jarduera esanguratsuak gauzatzeko (Agreda, 2005).

Haurraren nortasuna errespetatu eta garatzeko, izaera eratzeko eta haurraren berezko erakargarritasun intelektual, artistiko nahiz sozialak garatzeko ahalegina egiten da, bereziki askatasunez onartutako diziplina pertsonal bat antolatuz, eta kooperazioa nahiz hezkidetzak garatuz, etorkizuneko herritarraren prestakuntza emateko. Ikusten denez,



erabateko konfiantza dago haurren izaeran, aurretiko irakasle-zentrismoaren garrantzia ez da hain nabarmena ikaskuntza-prozesuan zehar, ikasleen interesak errespetatzen dira eta kasu honetan, hezkuntzaren zeregin nagusietan ikaslea "ikastetxearen erregea" izaten da.

Ikaslea motibatu behar da ikastera, konfiantzaz komunikatzera, ekimena izateko gai diren gizabanakoak izatera, horrela, bere ekintzen erantzulea izango da, eta bakoitzaren helburuak lortzeko lan egingo du, ez besteen onospena lortzeko. Modu horretan, irakaslea ikaskuntzaren gidaria izango da, haren ezagutzak beti transmititu beharrean, ikasleen pentsamendua suspertzera eramango du, ikasleak bere bizitza bizitzeko eta positiboki lanean aritzeko (Gadotti, 20002).

Eskola Berriaren inguruan lantzen diren edukiei dagokienez, aldaketa bat behar zutela ikusi zuten, eta ondorioztatu zuten egunerokotasuneko bizipenek nahiz esperientziek interes handiagoa pizten zutela momentuko liburuek baino, eta gauzatzen ziren gaiak askoz irakasgarriagoak ziren. Hezitzaile horietako askok uste zuten ikaskuntzaren esanguratsuen ikasgeletatik kanpo gertatzen zela, bizitzan bertan, eta naturarekin harremanetan egoteko irteerak bultzatzen ziren, eduki berriak bilatzeko asmoz eta ikasleek bizitzako egoera ezberdinak esperimentatzeko helburuarekin. Skidelskyren arabera (1973), oso pedagogo berritzaile gutxiei gustatzen zitzairen liburuetatik ikastea, eta gainerako metodoen gehigarriak zirela esaten zuten, beste baliabide lagungarri bat izan zitekeena momentuaren arabera.

### **3.3. DECROLYREN IDEIAK ETA PRINTZIPIOAK**

Eskola Berriaren ezaugarri nagusiak ikusi ondoren, eta jakinda Ovide-Jean Decroly mugimendu berritzaile honen adierazle nagusietako bat izan zela, pedagogo honen ideiak aztertzeko momentua iritisi da. Pedagogo honek hezkuntzaren ikuspuntuari aldaketak egin nahi zizkion, eta eredu tradizionala alde batera uzteko ahalegin handiak egin zituen, Eskola Berriaren ideia askorekin bat egiten dutenak.

Irakaskuntza tradizionalan ikaslea jasotzailea den pertsona hori, Decrolyk hezkuntzaren ardatza bihurtzea lortu nahi zuen, ikaslea garrantzitsuena izatea eta haren inguruan dena gauzatzea. Eskola eta bizitzaren arteko harremana gehiago erlazionatu nahi zuen, mundu erreal batean bizi behar du ikaslea eta bizitzarekin lotutako jarduerak burutu beharko ditu bere ikaskuntza-prozesua esanguratsua eta aberasgarria izateko. Beste aldetik, ikaslea hezkuntzaren behar handia, berezia, indibidual eta bakarra behar du, eta ikasle bakoitzaren beharrak ezagutu beharko dira hortik abiatuta ikasle guztiak kontuan izateko (Agreda, 2005).

Eskolaren helburu nagusietako bat hiritarrak eratzea da, eta helburu hori lortzeko eskola-praktika demokratiko baten bidez baino ezin da lortu. Decrolyk adierazten zuen eskolak bizitzarako hezi behar duela, gizonak nahiz emakumeak gizartean integartzeko prestaturik, eta gizarte hobea baten eraikuntzan konprometituz. Hori dela eta, askatasuna eta erantzukizunaren bitartez, pertsona bakoitza gizarteko kide kontziente eta erabilgarria izatea saiatuko da (Dubreucq-Choprix eta Fortuny, 1999).

Pedagogoa honen proposamen pedagogiko osoak arreta handia eskaintzen dio bizitza sozialari ikuspegi bikoitz batetik: alde batetik, jarrera sozialak ikasteko aukera ematen duten eskola-bizipen gisa eta beharrak asetzeko baliabideak eskaintzen dituen giza baliabidea da; eta beste aldetik, ekintzarako benetako heziketa da (Dubreucq-Choprix eta Fortuny, 1999).

Parte-hartze kolektiboa modu naturalean bultzatzen da, eta lehenengo ikasturteetatik ezinbestekotzat jotzen da gizarte-erantzukizunak betetzea, klaseko edo kaleko jardueretan, eta zeregin erabilgarriak garatzen dira, hala nola, gelaren garbiketa edo animalien nahiz landareen zainketa. Ikaslea hazten den heinean, karguak handitu eta dibertsifikatu egiten dira modu progresiboan prozesuan zehar: liburutegiak edota ludotekak zaintzen dituzte, eskola-aldizkarian parte hartzen dute, eta ikasturte amaierako jaia antolatzen dute gizarte-laguntzerako funtsak bilatzeko, besteak beste (Dubreucq-Choprix eta Fortuny, 1999).

Aurretik esan bezala, ikaslea ikaskuntza-prozesuaren protagonista izatea zen bere helburua, eta egoera horretan, irakaslearen rola oso garrantzitsua izango da modu egokian lan egiteko. Iradokitzailearen papera hartuko du, bitxikerien kitzikatzaileria izango da, ideien eta kontzeptuen ezagupenerako laguntzailea izango da eta ikaslearen parte hartzea eta komunikazioa sustatuko duen profesionala izango da. Decrolyk ez du nahi irakasleek hitz egitea edo edukiak azaltzea, baizik eta modu naturalean, ahalegin handirik gabe, hurrek hitz egitea, eta bere begiekin, belarriekin eta behar dutenarekin hizkuntzarekin kontaktuan aritzea.

Askatasuna eta erantzukizuna batera praktikatzeko dira, bai jardueren sozialetan, baita fisika eta kognitiboetan ere. Pedagogia aktiboak eta interesekoak mugimendu- eta ekintza-askatasuna eskatzen du, jolasaren bidezko jarduerak eta jarrerak hezitzaileak bultzatzen ditu (esploratzea, eraikitzea, ekoiztea...), eta proiektuen bidezko ikaskuntza sustatzen du. Ikasleek sortu eta garatu egiten dituzte landuko diren proiektu edo lan-planak, aurretik ezarritako programak eta eskuliburuak baztertuz. Lan-plan hauek garatzeak ere askatasun fisikoa, mentala eta adierazpenekoa dakartzate, eta jardueren kooperatiboa

bilatzen da, batez ere, talde-lana indartzeko eta ikasleen arteko elkarrekintza bultzatzeko (Dubreucq-Choprix eta Fortuny, 1999).

### 3.3.1. “IDEIA ELKARTUAK” PROGRAMA

Agredak (2005) aipatzen du Decrolyren pedagogian bere ekarpenik esanguratsuenak “**ideia elkartuak**” izeneko programa eta “**interesguneak**” izeneko metodoa izan zirela, eta eskola tradizionalaren printzipioak alde batera uzteko ideiak garatu zituen, batez ere, aurretik ikasleen interesak ez zirelako kontuan hartzen.

Modu horretan, “ideia elkartuak” deituriko programak bi helburu nagusi zituen:

- Norberak bere burua eta nortasuna ezagutzea, eta ondorioz, bakoitzaren nahiak, helburuak eta idealak finkatzea.
- Naturaren ingurunea ezagutzea, bertan garatzen delako bizitzako errealitatea eta bere xedeak betetzeko naturan parte hartu beharko duelako.

Garatzen dituzten edukiei dagokionez, ezagutzen eta informazioaren pilaketa ez da garrantzitsua Decrolyrentzat, eta nabarmentzen dira ikasleen beharra edo interesa pizten duten edukiak eta haiek bereganatzeko trebeziak. Beraz, haurren gaitasun-mailan oinarritutako programan, lan egiteko beharra sorrarazi behar da hurrengo ingurunearen aldagaiak kontuan izanda: alde batetik, ingurune naturala (bai bizirik dagoena, landareak zein animalak, baita hilda dagoena ere, mineralak, eguzkia eta astroak), eta beste aldetik, giza ingurunea (familia, gizartea eta eskolaren testuingurua). Era horretan, naturak gizakiarengan duen eragin positiboak eta negatiboak, eta gizakiak ingurunean duen eragina bere beharrak asetzeko bereizi egiten dira (Agreda, 2005).

Ikaslearen interesa modu eraginkor eta errealean aprobetxatzeko eta hori eskola-programa bihurtzeko, Decrolyk (1921) uste du gizabanakoei bi ezagutza-mota egokitu behar zaiela: lehenik eta behin, nork bere burua ezagutzeari buruzkoak, bakoitzaren aukerei eta asmoei buruzkoak, eta bigarrenik, bizi diren ingurune naturalari eta sozialari buruzko ezagutzak, aurretiko beharrianak eta asmoak betetzeko.

Horrekin lotuta, Ovide Decrolyk lau premia nagusi ezartzen ditu giza jardueraren helburuak direnak (y Rodríguez, 1925):

- Elikatzeko beharra (elikagaiak, edariak, arnasketa...).
- Egurats zabalaren aurkako beharra.
- Arrisku eta zailtasunei aurre egiteko beharra (instrukzioa, trebakuntza, elkarri laguntzea).
- Lan egiteko beharra .

Decrolyk sortutako l'Ermitage Eskolan edukiak lantzerako orduan hurrengo jarduerak garatzen zituen zenbait azpiataletan bereizita, gaur egun prozedurazko edukiak bezala ezagutzen direnak, besteak beste, behaketa, ahozko adierazpena, kalkulua, irakurketa, idazketa, neurketa, marrazketa eta gimnasia (y Rodríguez, 1925).

"Ideia elkartuak" izeneko programa honetan, ikasturtero errepikatzen joaten da edukien irakaskuntza-ikaskuntza prozesua, modu progresioboan geroz eta eduki konplexuagoak eta kontzeptu zabalagoak garatzen, eta 3-4 urteko ikasleekin lantzen hasteko aukera dago (Agreda, 2005).

Decroly pedagogoak argi zuen hezkuntza-sistema praktikara eta esperimentaziora gidatua egon behar zela, egunean zehar egoerak eskatzen duenaren arabera haurrak esperimentatzeko aukera izan behar du, eta ikaslea programaren instrumentu nagusia izango da, bakoitzaren interesak eta iritziak kontuan izanda ikasle guztien zailtasunak eta beharrak asetzeko. Modu horretan, eskolaren jarduera-motak hurrengoak dira, "*sentitu, pentsatu eta ekin*" jarduera mentalaren jarreretara erantzuten dutenak (y Rodríguez, 1925):

- **Behaketa jarduerak:** zentzumenezko elkarrekintzari egiten dio erreferentzia, behaketaren bitartez objektuen, izakien edota gertaeren nolakotasuna eta ezaugarriak ezagutzeko aukera izango dute, eta errealitatearekin harremanetan jartzeko helburua duten jarduerak planteatzen dira. Metodo zientifikoaren hasiera da, eta batez ere, ukimenezko materialak erabiltzen dira zentzumenezko eskuragarriak direnak, begi bistan ikaslearen interesa eragingo dutenak.
- **Elkarketa jarduerak:** behaketaren ondorengo jarduera da, landutako eduki berriak ikaslearen aurretiko ezagutzekin harremanetan jartzen dira arrazonamendua garatzeko eta ezagutza berri hauek hobeto erlazionatzeko. Horretarako, oroimena, irudiak zein testuak erabiltzen dira ideia orokorrera hurbiltzeko asmoz. Ideien elkarketaren bidez kontzeptu abstraktuak asimilatzeko eta bereganatzeko aukera errazagoa izango du ikasleak.
- **Adierazpen jarduerak:** adierazpena prozesuaren amaiera da, behaketa eta elkarketa egin ondoren lantzen da eta horren barruan metodo globala nabarmentzen da (lehenik eta behin kontzeptua osotasunean ikasten da, eta gero, haren zatiak), irakurketaren eta idazketaren irakaskuntza aplikatzean datzana. Bi adierazpen mota bereiz ditzakegu: alde batetik, adierazpen zehatza, behaketa gauzatzea egindako marrazki libreei, lanei, eskulanei... eta beste aldetik, adierazpen abstraktua, sinboloen bidezko pentsamendua eratzeari esaten zaio, testuliburuak, idazlanak, elkarrizketak eta abar.

Pedagogia aktiboari lotuta dagoen hezkuntza beharrezkoa da ikasleek ikasteko aukerak hobetzeko, batez ere, ezagutzen intuizioan oinarrituta, ekintzaren eta sentikortasunaren bitartez ezagutza berriak eraikitzeko. Decrolyk eta Boonek (1965) egindako ikerketaren arabera, lehenengo urteko eskolatzea akziora bideratuta egon behar da, ikasleak jakintza eraiki beharko du praktikako jardueren bidez. Metodo hau Decroly hezkuntza premia berezian garatzen hasi zen, eskola honetako ikasleek ikasteko modurik bakarra praktikako ekintzen bitartez zelako, eta izandako arrakasta ikusi ondoren, Lehen Hezkuntza orokorrera bideratzea erabaki zuen, ikasleen parte hartzea handiagotzeko eta modu esanguratsuan ikasteko.

Ekintzara bideratutako ikaskuntza-prozesua ikaslearentzat aberasgarria eta motibatzailea izateaz gain, kontuan hartu behar dira erabiltzen diren baliabideak eta garatzen den egoera. Argi dago denborarekin jarduera konplexuagoak garatzen joango direla, ikasleak hizkuntzaren bitartez hausnarketa aktiboa hobetzeko gaitasuna handituko du, eta talde lanean modu eraginkorrean aritzeko trebeziak garatuko ditu. Aipatutakoa lortzeko, ikaskuntzarako giza-ingurune parte-hartzaile egoki bat beharrezkoa izango da. Horrez gain, egiaztatuta dago (Decroly, 1937), salbuespenak salbuespen, memorizazioan oinarritutako ikaskuntza ez dela eraginkorra denbora luzean, eta hausnarketak eta esperientziak esanguratsuak direnean ezagutzak hobeto menperatzen direla, erabiltzen den hiztegia aberastuz. Ez dago esan beharrik eskolaren funtzioa garrantzi handikoa dela ikaslearen ikaskuntza-prozesuan, baina familiaren parte hartzea ezinbestekoa da modu koordinatuan lan egiteko eta inguru egoki batean haurra hazteko.

### **3.3.2. “INTERESGUNE” METODOA**

“Interesgune” metodoari dagokionez, Decrolyk eskuzko lana, jolasa eta ikaskuntza integratzeko modua proposatu zuen, ikasleen beharretatik abiatuta gaitasun intelektualak garatzeko eta gainerako ikasleekin elkarrekin lan egiten ikasteko. Haurtzarotik, haurrak bere inguruan gertatzen den guztian interesa jartzen du, ikusten duen edozein objektu edo egoerari arreta handia jartzen dio eta jakin-mina sortzen zaio guztia ezagutzeko. Haurra zereginak egiteko eta gauzatzeko prest dago, eta aktiboki lan egitea nahiago du, ikustea eta entzutea baino (Decroly, 1932).

“Interesgune” metodoa ekintzaren esparruaren barruan ikaslearen prestakuntzaz arduratzen da, eskola tradizionalak ez bezala, irakurtzen, idazten eta kalkulatzeko jakitean oinarritzen dela. Hezkuntza etengabeko ikerketa lan bat da, gogoeta sakona behar duena ikasitakoa adierazteko, eta auditorio bat izan beharrean esperimentatzeko esparru egokia izan behar da, haurrak bizitzarekin kontaktuan egiteko eszenatokia, hain zuzen ere (Patiño,

2007). Metodo honen ezaugarri adierazgarrietako bat ikasgaien arabeko programazioa alde batera uzten duela izan zen, eta horren ordean, gune tematiko batzuk proposatzen ditu, interesguneak deritzenak eta ikasleek sortzen dituztenak ematen diren egoeren arabera. Irakasleak momentu horiek aprobetxatu behar ditu ikasleek arreta eta motibazioa pizteko eta eduki berri horiek programazioan sartzeko, zalantzarik gabe, interesik gabe, ikaskuntza ez delako gertatzen, giza jarduerarik gertatzen ez den bezala, eta haurren interes sakon hauek ikasleek beharretatik sortzen dira.

Eskola tradizionalako eduki hezitzaile guztiak sistema honen objektuak izan daitezke, hala ere, gizabanakoaren beharren arabera ikasiko dira, aurretik ikusitako hiru jardueraren moten prozedura jarraituz (behaketa-, elkarketa- eta adierazpen-jarduerak), eta ez zientziak duten ikaskuntza-planen egitura jarraituz non ez da haurren interesetan oinarritzen.

Beraz, aurretik aipatutako jardueraren motak kontuan hartuz, Dubreucq-Choprixek eta Fortunyek (1999) Decrolyk landutako kontzeptu guztiak jardueraren horiek jarraitzen dituztela aipatzen dute, edukiaren ezagutza esanguratsua eta aberasgarria izateko. Modu honetan, hasiera bateko esperimentazioa egiten du ikasleak begiak itxita edo irekita, eta ikasten ari denaren ezaugarriak aztertzen eta ezagutzen hasten da, geroago aurretiko ezagutzekin erlazionatzeko. Elkarketaren bitartez, ezagutzak alderatzeko eta aurretik zuten pentsaerarekin harremanetan jartzeko aukera izango du ikasleak (konparatzeko, sailkatzeko...). Behaketak eta asoziazioak harreman estua dute adierazpenarekin, behaketa lantzea adierazpenik gabe ezinezkoa izango litzateke eta haurren ezagutza linguistikoak garatzea ahalbidetzen laguntzen du. Adierazpenean ikasleak bere ezagutzak eta trebeziak praktikan jartzeko aukera izango du jardueraren ezberdinen bitartez (marrazkia, eskulanak...), haien irudimena eta pertsonalitatea garatuz. Decrolyren eskolan, irakasleak erabiltzen duen hiztegiaren laguntzaz, ikasleek terminologia egokia erabiltzen ikasiko dute, eta behaketarekin eta asoziazioarekin lotutako ahozko nahiz idatzizko adierazpenak, zehaztasunera bultzatuko du ikaslearen garapena.

Decroly eta Monchamp (1919) arabera, interesgune metodoaren osagarri gisa, aipatu beharrekoak dira L'Ermitage Eskolan garatu ziren hurrengo zereginak, ikasleek ikaskuntza-prozesuan eragin handia izan zutenak: hezkuntza-jolasak, klasearen giroa eta gizarte-ingurunea.

- Hezkuntza-jolasak eskolako edukiak modu praktikoa eta eraginkorrean lantzeko jarduerari egiten dio erreferentzia Decrolyk, eta zeregin guztiak ikasleentzako estimulatuzaileak aurkeztu behar direla aipatzen du.

Ezagutzak barneratzeko errepikapenak edo behin eta berriz egindako ariketak egitea erraz bihur daitezke jolas indibidual eta kolektiboak, eta irakasleak jolas horiek gidatuz ikasleen ikaskuntza bultzatzeko modu esanguratsua izan daiteke. 1919an idatzitako liburuan, "Iniciación a la actividad intelectual y motriz por los juegos educativos" izenekoa, Decrolyk jolasa ikaskuntzaren elementu motibatzaile nagusizat ahalbidetzen duen hezkuntza-aukera ezberdinak aurkeztu zituen, eta L'Ermitage Eskolan horrelako dinamikak garatzea ohikoa zen ustekabeko eta askotariko materialak erabiliz.

- Klasearen giropenari dagokionez, aipatu beharrekoa da ikasgelan gordetzen den material ugaria saioetan erabiltzeko. Bizitzaren alde hezteko premisarekin lotuta, ikastetxean askotariko materiala egoten da, haurren bat-bateko bildumazaletasunaren ondorioz klasera iristen dena eta ikaslearen bizi-ingurunean dagoena (hostoak, landareak, harriak, elikagaiak...). Material-multzo hori material didaktikoa bihurtzen da, eta behatzeko, sailkatzeko edota ordenatzeko balio du, edozein objektu ikaskuntzarako erabilgarria izanik.
- Ingurune-sozialari begira, L'Ermitage Eskolan ikasleek ardura batzuk garatzen dituzte ikaskideekin batera, eskolak gizarte heldu baten antza izatea eragiten duena eta bizitzarako prestatzen duena.

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, Dubreucq-Choprixek eta Fortunyek (1999) lantzen diren kontzeptu guztiak jarduera hauek jarraitzen dituztela aipatzen dute, edukien ezagutza esanguratsua eta aberasgarria izateko. Modu honetan, hasiera bateko esperimendazioa egiten du ikasleak begiak itxita edo irekita, eta ikasten ari denaren ezaugarriak aztertzen hasten da, geroago aurretiko ezagutzekin erlazionatzeko. Elkarketaren bitartez ezagutzak aldatzeko eta aurretik zuten pentsaerarekin harremanetan jartzeko aukera izango du ikasleak (konparatzeko, sailkatzeko...). Behaketak eta asoziazioak harreman estua dute adierazpenarekin, behaketa lantzea adierazpenik gabe ezinezkoa izango litzateke eta haurren ezagutza linguistikoak garatzea ahalbidetzen laguntzen du. Decrolyren eskolan, irakasleak erabiltzen duen hiztegiaren laguntzaz, ikasleek terminologia egokia erabiltzen ikasiko dute, eta behaketarekin eta asoziazioarekin lotutako ahozko nahiz idatzizko adierazpenak, zehaztasunera bultzatuko du ikaslearen garapena.

### **3.3.3. GLOBALIZAZIOA, ESKOLA-IKASKUNTZAREN OINARRIA**

Decrolyk globalizazioaren funtzioari buruz egindako garapena ez dute hurrengo hamarkadetako psikologoek ezeztatu, baizik eta gehiago osatu eta aberastu egin dute. Hori

dela eta, gaur egun ere, eskolatzeko lehenengo urteetako ikasketa-planak eta eskola-programak haurren errealitatekin oso hurbilak dauden edukiekin planteatzen dira, ikaslearentzat esanguratsuak direnak, eta ez dutenak zerikusia ikasgaiekin (Bernet et al., 2001). Kontzeptu hau haurraren somaketaren eta pentsamenduaren prozesuen kontzeptualizazio gestaltikoan oinarritzen da, gizakia bere osotasunean aintzat hartzen duena, hain zuzen ere, eta konplexuenetik sinpleenera ikasi egiten da.

Argi dago irakurketa- eta idazketa-prozesuek ikasleen ikaskuntzan duten garrantzia, eta ikerketek diotenez (Garcia, 2011), 5-6 urterekin irakurtzen hasteko adin egokia da, kontuan izanda Haur Hezkuntzan beharrezkoak diren alderdi batzuk lantzen direla ikaskuntzara egokitzeko, hala nola, antolaketa pertzeptiboa (bisuala eta entzunezkoa), garapen psikomotorra, komunikazio linguistikoa eta funtzio mental nagusien garapena (memoria, arreta...).

#### **3.3.4. IRAKURKETA ETA IDAZKETAREN LANKETA**

Irakurketa ikaskuntzaren eta informazioaren iturria da, eskolako curriculumaren edukien arrakasta ahalbidetzen du eta jarreraren nahiz balore pertsonal eta sozialen eskuratzea laguntzen du. Berdina gertatzen da idazketarekin, zein ikasleek zeinu eta kodigo batzuen bitartez komunikatzen diren haien arteko harremana eta komunikazioa errazteko (Garcia, 2011).

Decrolyk defendatu zuen irakurketa-idazketa metodoa Itardek eta Bournevillek sortutako metodoan oinarritzen zen (Agreda, 2005), hasieran behar berezia zuten ikasleentzat zuzenduta egon zena eta geroago ikasle guztiekin aplikatu zena. Metodo ideo-bisual hau haurraren ezagutza psikologikoan eta hitzen bistaratzean oinarritzen da, zein esalditik eta hitzetik abiatzen da, analisiaren bitartez hitzaren, silabaren eta fonemaren bereizketara iristeko (Dubreucq-Choprix eta Fortuny, 1999). Modu horretan, irakurketaren irakaskuntzan printzipio horren aplikazioa gauzatu zuen, Decrolyren ustez, esaldia hitza baino konkrituagoa zen, eta hitza silaba baino abstraktuagoa da analisi-prozesu baten emaitza baitira. Agredaren (2005) esanetan, ikaskuntza ordena hurrengoa zen: esaldia-hitza-silaba-hizkia. Esaldia izango da haurrari esanahi erreala eta ezaguna adierazten diona eta komunikatzeko erabiliko duena.

Irakurketa-idazketan lantzen diren esaldiak behaketa zuzenetik ateratzen dira, asoziazioaren bitartez aurretik ikusitako behaketan oinarrituta, eta ikasgelako egoera errealetik abiatuta, horrela ikasleek erabilgarritasuna eta zentzua aurkituko diote prozesuari. Metodo honek abantaila ugari ditu ikaslearentzat, bere psikologian egokitzen den metodo



naturala izateaz gain, irakurketa bizitzarekin erlazionatzeko aukera ematen dio, hizkuntza bizitza afektiboarekin lotzea ahalbidetzen du eta ikusmen-pertzepzio azkarragoa izatea eta irakurmena hobeto ulertzea errazten du (Dubreucq-Choprix eta Fortuny, 1999).

Globalizazio metodo honetan lau etapa jarraitzen dira, ordenean garatzea beharrezkoak direnak: ulermena, imitazioa, elaborazioa eta ekoizpena (Garcia, 2011). Idazketa ikaskuntzari dagokionez, haurren lehenengo urratsak berezko marrazkia eta modelaketa dira (hasieran hizkiak itxuragabekoak izaten direnak eta hobetzen joaten direnak) eta kopiaketaren bidez garatzen joaten da. Arbelean idatzita dauden hitzek eta esaldiek garrantzi handia daukate eta geroz eta gaitasun handiagoa izango dute buruz kopiatzeko eta begi oroimena lantzeko.

Momentuko bizipen batetik ideia edo esaldi bat sortu eta idatzi egiten da arbelean eta guztion artean irakurtzen da pixkanaka-pixkanak. Arbelean idatzitako esaldia ulertzean ikasleek haien koadernoetan kopiatzen dute eta marrazki bat egiten dute, esaldia memorizatzen da eta horrekin lotutako esaldi berriak asmatzen dira. Esaldi hauek kartulina handietan idazten joaten dira ikasgelatik jartzeko, eta hitzak, silabak eta letrak desberdinduta mozten dira, haiekin jolasean aritzeko eta hitz edota esaldi berriak sortzeko. Azkenean, klaseak esaldiz apainduta geratzen dira eta ikasleak jolasean aritzeko jarduera proposa izan daiteke, etengabe esaldi berriak eratzeko eta irakurketa nahiz idazketa hobetzen laguntzeko (Bernet et al., 2001).

### **3.3.5. EBALUAZIOA**

Eskolan lantzen diren jardueretan lehiakortasuna bultzatzen duten ekintzak alde batera uzten dira, eta sailkapenak nahiz azterketak saihestu egiten dira ikasleen arteko lehia ekiditeko. Sehileko ebaluazioak txosten orokorretan aurkezten dira, eta ikaslearen heldutasuna, maila intelektual, fisiko eta sozialak kontuan hartu egiten dira, hau da, pertsonaren hiru alderdi nagusiak egunerokotasuneko jarduerekin garatu egiten direnak (Dubreucq-Choprix eta Fortuny, 1999). Edukiak nola lantzen diren arabera, ebaluazio tresnak ezberdinak izango dira, eta banaka edo taldeka lan egiteak, ebaluatzeko modua baldintzatuko du (irakasleak egindako heteroebaluazioa, ikasleen autoebaluazioa edo taldeko koebaluazioa landuko da).

Landutako gaiaren inguruko ebaluazioa egiteko banakako fitxa bat betetzen da aurretik pentsatutako helburuak lortu diren ala ez ikusteko eta helburu hauek nola bete dituen (banaka edo besteen laguntzarekin) baloratzeko. Gaia lantzean autoebaluazio bat ere landu egiten da, bertan, ikasleek helburuen, edukien eta jardueren egokitasuna baloratzeko,

eta saioetan zehar haiek erabilitako materialak, parte-hartzea, besteekiko harremana eta jarreraz hausnartzeko aukera izango dute. Ikaslearen autoebaluazioa oso garrantzitsua izango da bakoitzaren lorpenak eta partaidetza nolakoa izan den ikusteko, eta ikaskuntza prozesuan izango duen atzeraelikadura estimulatzeko oso egokia izango da, modu kritikoan hobetzeko.

Koebaluazioari dagokionez, taldean lan egiten den jardueretan garatzen da, ikasle-taldeak egiten du ebaluazioa, eta kide guztiek bakoitzaren jardunari buruz egindako baterako balorazio-prozesua errazten duen tresna da. Aldez aurretik ebaluazio-irizpide batzuk kontuan hartzen dira, eta talde bezala parte-hartzea eta hausnarketa eraikitzailea sustatzen laguntzen du ikaskuntza-egoeraren aurrean. Horrez gain, lanarekiko erantzukizuna hobetzen du, eta taldea integratzera bideratutako jarrerak garatzea bultzatzen du, besteen iritziak eta iruzkinak kontuan izanda.

#### **4. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA: BASERRI-ESKOLA!**

##### **4.1. PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA**

Gasteizko Ibaiondo ikastetxeko 5.maila A-ko taldea aukeratu dugu, 20 ikasleko taldea (9 mutil eta 11 neska), eta talde osoarekin garatu dugu sekuentzia didaktikoa hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, talde izaera bultzatzeko eta ikasleen arteko harremanak indartzeko, taldea bitan zatitzea ez zitzaigulako erabakirik onena iruditzen, eta arazoak egongo litzateke bi talde horiek egiteko. Beste aldetik, aberasgarriagoa ikusten dugulako talde osoa haiek planteatutako irteeran egotea, guztiek batera naturarekin erlazionatutako jarduerak egitea momentu berean eta bizipenak partekatzea. Gainera, garatuko dituzten jarduerak talde bezala garatzea aberasgarriak dira, eta talde txikietan baino erakargarriagoak izan daitezke. Hori dela eta, nahiz eta Ovide Decroly pedagogoak talde txikiekin lanean aritu ikasle bakoitzaren beharrak asetzeko, 20 ikasleko taldea aukeratu dugu eta banaketarik egin gabe aurrera eramatea erabaki dugu.

Garatutako sekuentzia didaktikoa ikasleen interesen arabera garatu egin da, ikasleen beharretatik abiatuta haiek prestatu dituzte egin beharreko jarduerak eta sekuentzia didaktikoa aurrera eraman dute irakaslearen laguntzarekin. Modu horretan, ikasleen parte hartzea ezinbestekoa izan da sekuentzia didaktikoa guztiz garatzeko eta haiek adostu dituzte garatuko zituzten jarduerak. Azkenean, haien interesetatik, Sastarraingo baserri-eskolara joateko irteera proposatu egin da eta hasieratik antolatuz, hori aurrera eramateko betebeharrak garatu egin dira: izan beharreko baimenak, planifikazioa, aurrekontua... Baserri-eskolako irteeran naturarekin erlazionatutako jarduerak landu dira (baratzean lagundu, animaliekin egon, mendira joan, kobazuloak bisitatu eta aztertu...) eta ikastetxeko errutina egoeratik aldenteko aukera paregabea izan da.

Garatu dugun gaia (baserri-eskola eta naturarekin erlazionatutako jarduerak), 5.mailako programazioaren barruan sartzen da, landu beharreko gaia da eta gelatik kanpo modu esanguratsuan eta aktiboan lantzeko aukera ederra izan da. Sekuentzia honen barruan, ez dira ikasgaiak bereizi baina arlo bakoitzeko jarduerak interesgarriak garatu egin dira (matematikako buruketa, hizkuntza lantzeko idatzizko idazlanak eta ahozko aurkezpenak, naturarekin erlazioantutako jarduerak eta abar). Beraz, hasieran ordutegia malgua izan da jarduerak guztiak prestatzeko. Baserri-eskolan zehar egindako ekintzek plangintza bat jarraitu dute modu koordinatuan lantzeko, eta ikasleek nahi izan duten moduan antolatu dituzte haien interesen eta nahien arabera.

Hasiera batean pentsatuta ez zegoen gaia da, ikasleen elkarrizketa batetik sortzen joan dira sekuentzia didaktikoa, eta curriculumeko helburu, eduki eta kompetentziak garatzeko aukera egokia denez aurrera eramatea erabaki da.

Esan bezala, ikasleen interesetatik garatutako sekuentzia didaktikoa da, ikasleak izan dira jardueren protagonistak momentu osoan eta haiak aukeratu dituzte egin beharreko jarduerak, elkarrizketen bitartez adostasunetara helduz. Metodologia honen abiapuntua ikasleen beharrak nahiz nahiak ezagutzea da, haien motibaziotik garatu beharko dira saioak ikaskuntza esanguratsua izateko eta ikasten dauden momentuan aktiboki lan egiteko.

## **4.2. PROPOSAMENAREN ARAZO-EGOERA**

### **4.2.1. TESTUINGURUA**

Planteatutako hezkuntza-proposamena Gasteiz hiriko ikastola batean garatzen da, Ibaiondo ikastetxe publiko eta euskaldunean, hain zuzen ere. Ikastetxe hau Ibaiondo auzoan kokatuta dago, D eredukoa da eta bere hezkuntza-sistema Heziberri 2020 planean oinarritzen da, Heziberri planeko curriculumaren barnean.

Ibaiondo ikastetxean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak biltzen dira eta kokapenagatik auzoko biztanleek eskola hori aukeratzeko dute. Guztira 650 ikasle elkartzen dira, eta orokorrean, familien maila sozioekonomikoa ertaina dela esan daiteke, ikasleen artean herrialde ezberdinetako ikasleak bilduz eta guztion artean aniztasuna nabarmenduz.

Ikastetxe laikoa, eskola inklusiboaren aldekoa, aukera berdintasuna bermatzen duena eta bizikidetzaren bultzatzen duen eskola bezala definitzen da Ibaiondo ikastola, non familien parte hartzea oso garrantzitsua den ikasleen ikaskuntza-prozesuan zehar. Ikasleak bere osotasunean garatzea, gaitasun linguistiko egokiak izatea, eta pertsona autonomo eta kritikoa prestatzea, besteak beste, dira ikastetxeko helburu nagusietako batzuk.

Ikaslea ikaskuntza prozesuaren ardatzean kokatzen da, bera izango da protagonista eta bakoitzaren berezitasunak eta beharrak kontuan hartuko dira ikaskuntza aberasgarria eta esanguratsua izateko. Talde lanaren garrantzia nabarmentzen da, eta ikaskuntza kooperatiboko jarduerak eramaten dira aurrera ikasturtean zehar ikasleen arteko gaitasunak garatzeko.

Aukeratutako klasea 5.mailako gela bat izan da, 20 ikasleko taldea (9 mutil eta 11 neska) nahiko parte hartzailea eta aktiboa dena planteatzen diren jardueretan. Ikasleen artean ezaugarri eta gaitasun ezberdineko ikasleak aurki ditzakegu, batzuk beste batzuk baino motibatuagoak ikasterako orduan, eta taldean nahiko ondo konpontzen direla esan daiteke. Hala ere, badaude ikasle batzuk dinamika asko oztopatzen dituztela gela barruan, eta

ikastetxetik kanpoko jardueretan interes handiagoa jartzen dutela. Ezagutza eta esperientzia berriak izateko gogo handia duten ikasleak direla esan daiteke eta garatuko diren jardueretarako talde ona dela esango nuke.

Garatutako sekuentzia didaktikoa maiatzaren 3an hasi eta maiatzaren 13an amaitzen da. Hiru ataletan bereizi da: hasieran, ikasleen arteko elkarriketa batetik baserri-eskola batera joateko ideia bota da eta hori gauzatzeko baimenak eta betebeharrak garatu dituzte ikasleek. Hurrengo egunean irteeraren planifikazioa egiten da eta aurrekontua ateratzen dute ikasleek buruketa baten bitartez. Bigarren atalean, iklaseekin irteera burutzen da, hiru egunekoa Sastarraingo baserri-ekolan bertan garatzen dituzten jarduera eta tailer guztiekin. Amaitzeko, irteeratik bueltan ikasleek album bat sortzen dute ateratako argazkiekin eta haiek egindako hausnarketekin, eta aurkezpen bat prestatzen dute gainerako ikasgeletan erakusteko zer egin duten irteeran zehar.

#### **4.2.2. ARAZOA**

Ikasleen beharretatik naturarekin erlazionatutako jardueren interesa piztu egin da, eta irteera bat egiteko proposamena bota dute oraindik ikasturtean zehar ez dutelako egin irteerarik eta naturatik gehiago ikastea nahi zutelako.

Zer egin beharko dugu irteera burutzea posible izateko? Zer landu nahiko dugu naturan? Zertarako?

#### **4.2.3. XEDEA**

Natura inguruko ezagutza eta bizipen berriak esperimintatzea eta aztertzea album bat sortzeko eta ahozko aurkezpen bat egiteko.

#### **4.2.4. ATAZA**

Ikasleak burutzen joango dira irteera hori posible egiteko beharrezkoak diren zereginak (baimenak, informazioaren bilaketa, aurrekontua...) eta baserri-eskolako jarduerak eta ekintzak garatuko dituzte natura inguruko ezagutza eta esperientzia gehiago izateko. Amaitzeko, irteeran egindako argazkien albuma eta hausnarketa kritikoa egingo dute gainerako ikasleei erakusteko.

### 4.3. KONPETENTZIAK

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK
<b>1. Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia.</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hitzik gabeko egoerak eta antzezpenak ulertzea, eta autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.</li><li>• Hitzeko komunikazio jariakor, autonomo, sortzaile eta eraginkorra izatea.</li></ul>
<b>2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Informazioa bilatzea, aukeratzea, gordetzea eta berreskuratzea hainbat informazio-iturritatik praktikara eramateko.</li><li>• Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa).</li><li>• Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu sortzailea).</li><li>• Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.</li></ul>
<b>3. Elkarbizitzarako kompetentzia</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta interesak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteen sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.</li><li>• Taldean lan egiten ikastea: estrategiak adostea, helburu berarekin elkarlanean aritzea, eta rol bakoitzari dagozkion funtzio eta betebeharrak onartzea helburu orokorra lortzeko.</li><li>• Norberaren portaerak eta elkarbizitzaren oinarri diren gizarte-ohituretatik eratortzen diren arauak ulertzea eta betetzea.</li><li>• Gatazka-egoerak elkarriketaren bitartez konpontzea.</li></ul>
<b>4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ideiak edo proiektuak sortzea, proiektuen planifikazioa egitea eta haien bideragarritasuna aztertzea.</li><li>• Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa dena haiek doitzea.</li><li>• Egindako ekintzak baloratzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea.</li></ul>

- Norberaren lana hobetzeko eta besteei laguntzeko prest egotea.

### 5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia

- Norberaren motibazioa eta nahia erregulatzea.
- Norberaren emozioak ezagutzea eta adieraztea.
- Nork bere erabakiak gero eta autonomia handiagoz hartzea.

## OINARRIZKO DIZIPLINA BARNEKO KONPETENTZIAK

### 1. Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia

- Esparru pertsonal, sozial edo akademikoen berezko hitzezko edo idatzizko egoeretara egokitzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei.
- Hizkuntzen erabilera-arauei eta hizkuntzen sistemari buruzko jakintza erabiltzea hitzezko eta idatzizko testuak sortzeko, komunikazio egoki eta eraginkorra izateko.
- Komunikatzeko, ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea.
- Lagunekin hitz egiteko hizkuntzaren oinarrizko arauak ezagutzea eta erabiltzea.
- Nork bere ideiak era egokian azaltzea eta besteenak entzutea eta interpretatzea.
- Nork bere bizipenak eta emozioak taldean ahoz azaltzea.

### 2. Matematikarako kompetentzia

- Estrategia egokien bidez identifikatzea eta ebaztea eduki matematikoa duen buruketa.
- Prozedura matematiko egokiak hautatzea eta erabiltzea errealitatea kalkulatzeko, irudikatze eta interpretatzeko.

### 3. Zientziarako kompetentzia

- Natura-ingurunearen gaineko erabakiak arduraz, autonomiaz eta ikuspegi kritikoz hartzea, norberaren eta gizartearen bizitza hobetzeko eta ingurunea zaindu eta hobetzeko.
- Naturako inguru eta bizipen berriak esperimintatzea.

### 5. Kompetentzia sozial eta zibikoa

- Taldean modu egokian lanean aritzea eta antolatzea, bakoitzaren gaitasun eta ezaugarriak kontuan izanik.
- Taldean sortutako gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bitartez kudeatzea eta

gainditzea.

- Bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izatea eta egoera hori onartzea, konpromisoa izanda eta elkartasuna adierazita.
- Jarrera ez baztertzaila izatea, aniztasuna balioestea eta lagunekiko errespetua izatea inor baztertu gabe, gaitasun, genero, maila sozio-ekonomiko, jatorri edo beste edozein arrazoi dela.
- Jardueretan autonomia garatzea.

## 6. Konpetentzia motorra

- Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.

### 4.4. EDUKIAK

- Hizkuntzaren egoera ezberdinen bereizketa eta ulermena.
- Idatzizko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategien erabilera.
- Ideien, zereginen eta proiektuearen planifikazioa.
- Ahozko komunikazioaren adierazpena.
- Problema ulertzeko eta ebazteko estrategien planifikazioa eta garapena.
- Baserriko eremuak eta inguruaren ezagutza.
- Baserriko eta natura-inguruko animalien eta landarediaren ezagutza eta identifikazioa.
- Izaki bizidunak eta natura-ingurua errespetatzeko eta zaintzeko ohituren ezagutza.
- Baserrietako zereginen ezagutza eta esperimentazioa (baratzeko laboreak, gazta egiteko ekoizpen-tailerra, animalien zainketa...).
- Ikusitakoaren inguruko hausnarketa kritikoa eta kontzeptuen identifikazioa.

### 4.5. HELBURU DIDAKTIKOAK

- Hizkuntza erabiltzeko modu ezberdinak bereiztea eta ulertzea, ahozko eta idatzizko diskursoak interpretatuz eta sortuz, komunikazio-egoera bakoitzera egokitzeko.
- Taldean lan egiten jakitea, egoeraren arabera elkarri lagunduz, zereginak modu egokian eta antolatuan egiteko.
- Buruketak elkarrekin egiten jakitea, arazo-egoera ulertuz eta interpretatuz, errealitateko zailtasuna kalkulatzeko, irudikatzeko eta interpretatzeko.



- Baserrietako bizi-tza ezagutzea, inguruko animaliak, landareria eta zonaldea aztertuz nahiz esperimentatuz, ezagutza eta esperientzia berriak izateko.
- Izaki bizidunak eta natura-ingurunea errespetatzeko ohiturak ikastea, naturako elementuak baloratuz eta zainduz, bizi duen inguruneaz jabetzen den herritarra izateko.
- Baserriko zereginen eta laboreen ezagutza izatea, baratzean edo ekoizpen-tailerretan parte hartuz, natura-ingurunearen gaineko erabakiak arduraz, autonomiaz eta ikuspegi kritikoz hartzeko, ingurunea zaintzeko eta hobetzeko.
- Natura-ingurunean agerian jartzen diren ezaugarriak eta erlazioak erreparatzea, identifikatzea eta sailkatzea, eremua aztertuz eta esperimentatuz, naturako ezaugarriak ezagutzeko eta baloratzeko.

#### **4.6. EBALUAZIOA**

Garatutako sekuentzia didaktikoan zehar ikasleek egin dutena baloratzeko zenbait ebaluazio-orri eta galdetegi bete beharko dituzte, izandako jarrera, parte hartzea eta ikasitakoa baloratzeko. Sekuentzia didaktiko honetan, garrantzitsuena ez da izango ikasleek ikasitako animalia edo landareen izen guztiak jakitea, edo kobazuloetako ezaugarri guztiak buruz ikastea, baizik eta esperientziak eta bizipenen bitartez, naturaren eta baserriaren inguruko ezagutza gehiago izatea eta ikasleen beharrak asetzea. Bizipen eta esperientzia hauen bitartez, ikasleek ezagutza gehiago izateko aukera izango dute eta haien parte-hartze positiboa eta interesa baloratuko da.

Sekuentzia didaktikoaren hasi-hasieratik, haien interesetatik abiatutako jarduerak garatzen joan dira. Baserritako eskolatik bueltatu baino lehen, ikasleek ebaluazio-orri bat bete dute irteeran zehar ikasitakoa baloratzeko eta haiek izandako jarrera ebaluatzeko. Irteerara joan aurretik zituzten zalantzak edo interesak asetu dituzten jakiteko baliagarria izango da, eta bertan bizi izan dutena modu orokorrean ezagutzeko aukera izango dugu. Horrez gain, bertan izandako jarrera edota parte hartzea modu kritikoan hausnartzeko aukera izango dute eta irteera hobetzeko proposamenak idatzi ahaliko dituzte.. Ebaluazio hau banakakoa izango da, hau da, autoebaluazioa izango da baserritako eskolako gaiaren inguruan.

Sekuentzia didaktikoa amaitu ostean, beste autoebaluazio bat egin dute ikasleek, oraingoan sekuentzia didaktikoa modu orokorrean baloratzeko eta hausnarketa kritikoa egiteko. Ordenagailuen bitartez, galdetegi bat bete beharko dute ikasleek hiru ataletan bereizita egongo dena: irteera prestatzeko prozesua, baserritako eskolako irteera eta amaierako bildumaren eraketa eta aurkezpenen balorazioa.

Amaitzeko, irakasleak ikasleak ebaluatuko ditu ebaluazio-errubrika baten bitartez, ikasleen jarrera, parte-hartzea eta izandako interesa baloratzeko.

ZERTARAKO	NOIZ	NORK	TRESNAK
Baserri-eskolan ikasleek izandako jarrera, parte-hartzea eta ikasitakoa baloratzeko.	Prozesuan zehar	Ikasleek (autoebaluazioa)	(1) Ebaluazio-orrria eta galdera laburrak.
Sekuentzia didaktikoa baloratzeko eta hausnarketa kritikoa egiteko.	Amaieran	Ikasleek (autoebaluazioa)	(2) Galdetegia ordenagailuan.

#### 4.7. SAIOEN SEKUENTZIA

<b>HASIERAKO FASEA</b>	<b>1.SAIOA</b>	<b>1.JARDUERA</b>	Ikastetxeari, gurasoei eta baserri-eskolari baimenak idatzi taldeka.
		<b>2.JARDUERA</b>	Egindako zirriborroak talde handian zuzendu, txukuntasunez garbira pasatu eta baimenak bidali.
	<b>2.SAIOA</b>	<b>3.JARDUERA</b>	Baserri-eskolan landu nahi dena guztion artean adostu eta planifikazioa egin.
		<b>4.JARDUERA</b>	Planifikazioko jarduerak finkatuta, aurrekontua atera buruketa binaka ebatziz.
<b>GARAPEN FASEA</b>	<b>3.SAIOA</b>	<b>5.JARDUERA</b>	IRTEERAKO LEHENENGO EGUNA
	<b>4.SAIOA</b>	<b>6.JARDUERA</b>	IRTEERAKO BIGARREN EGUNA
	<b>5.SAIOA</b>	<b>7.JARDUERA</b>	IRTEERAKO HIRUGARREN EGUNA

<b>AMAIERAKO FASEA</b>	<b>6.SAIOA</b>	<b>8.JARDUERA</b>	Albuma sortzea ateratako argazkiekin eta egindako hausnarketekin.
<b>TRANSFERITZE -FASEA</b>	<b>7.SAIOA</b>	<b>9.JARDUERA</b>	Garatutako albuma Haur Hezkuntzako eta 1.zikloko ikasleei erakustea aurkezpen baten bitartez.

### **2021eko maiatzaren 3a, astelehena.**

#### **1.SAIOA**

*1.elkarrizketa: baserri-eskolara joatearen ideia agertzen da:*

**Irakaslea:** Egun on neska-mutilak! Zer moduz asteburua? Nork kontatu nahi digu egun hauetan familiarekin eta lagunekin egindakoa?

**Aitor:** Ni gurasoekin egon naiz parkean jolasten eta oso ondo pasatu dugu!

**Markel:** Ni larunbatean aiton-amonekin egon nintzen buelta bat ematen parketik eta haiekin bazkaltzen, larunbat guztietan haiekin bazkaltzen dut eta beti bazkari goxoa egiten didate!

**Maite:** Ni Olarizu mendira joan nintzen gurasoekin eta lagunekin, eta gora igotzean Gasteiz osoa ikusten zen! Oso ikaragarriak ziren bistak!

**Irakaslea:** Ze ondo! Familiarekin asteburua pasatzea oso ondo dago, gainera asteburu honetan eguraldi oso ona egin du eta kalean jolastea plan ederra da!

**Ainhoa:** Ni Gorbea mendira joan nintzen nire gurasoekin eta nire txakurrarekin, asko nekatu ginen eta goraino iritsi ginen! Egun oso polita izan zen eta animalia eta landare asko ikusi genituen!

**Amaia:** Ze animalia ikusi zenituen Ainhoa?

**Ainhoa:** Behi eta orein ugari ikusi genituen eta batez ere hegazti asko! Aitak esaten zidan gehienak arranoak eta belatzak zirela, baina mota askotako hegaztiak ikusi genituen! Gainera gugandik oso gertu pasa ziren batzuk eta asko beldurtu nintzen!

**Alvaro:** Nik etxean loro bat daukat, handia eta berdea da eta Tximi du izena. Batzuetan errepikatzen du nik esaten dudana eta pipak jatea gustatzen zaizkio!

**Aitana:** Eta berarekin hitz egiten duzu?

**Alvaro:** Ez, bakarrik hitz batzuk errepikatzen ditu eta oso barregarria da!

**Irakaslea:** Zuek etxean maskotarik duzue?

**Maite:** Bai, nik katu bat daukat, Niku du izena eta asko jolasten dut berarekin.

**Marta:** Nik bi txakur ditut, Negu eta Oker, oso gazteak dira eta batzuetan kokka egiten didate, baina ez dute minik egiten oraindik.

**Alex:** Nik txikitan arrainak nituen arrainontzi batean baina hil ziren duela bi urte... oso triste jarri nintzen eta gurasoek dortoka bat erosi zidaten. Orain asko handitu da eta argazkiak ateratzea asko gustatzen zait.

**Markel:** Nik etxean ez ditut maskotarik baina nire aitonak bere baserrian animalia asko ditu: bi behi, ardi asko, oiloak, eta bi txakur. Asko gustatzen zait berarekin asteburuetan joatea eta animaliekin egotea, lasaitasun handia ematen didate eta asko disfrutatzen dut naturako ingurune horretan.

**Inaxio:** Eta zein herrian dago? zer da, etxe handia?

**Markel:** Ez dago herri zehatz batean, uste dut Bergaratik gertu dagoela menditik galduta, etxe oso handia da eta esan didanagatik, duela urte asko bertan bizi zen familia osoa, baina orain bera bakarrik bizi da animaliekin eta baratzarekin.

**Aitana:** Ala! Ze interesgarria, berak bakarrik zaintzen ditu animaliak eta baratzea?

**Esti:** Eta zer landatzen du baratzean? tomateak eta letxugak?

**Markel:** Bai, nire aitonak bakarrik zaintzen ditu animaliak eta baratzea, betidanik gustatu zaio horrela lan egitea eta oso gustura aritzen da. Baratzean mila gauza landatzen ditu: azenarioak, letxugak, piperrak, tomateak... eta bisitak egiten dizkiogunean niri ako gustatzen zait bertan laguntzea!

**Irakaslea:** Ze ondo Markel, hori bai laguntzaile ona! Zuek egon zarete baserri batean noizbehin?

**Jokin:** Bai, ni udako kanpamentuetan egon nintzen baserri batean eta oso ondo pasatu nuen! Animalia asko ikusi genituen eta menditik joaten ginenean zuhaitz eta landare ugari ikusi genituen, oso harrigarriak zirenak! Esperientzia oso polita izan zen eta berriro joatea gustatuko litzaidake!

**Alvaro:** Joe maisu, ni ez naiz inoiz egon baserri batean egon, jarri ahalko zenuke bideoren bat baserri bat ikusteko?

**Irakaslea:** Bai, noski! Orain baserri batzuen bideo bat jarriko dugu, ea zer iruditzen zaizuen. (Bideoa: [https://www.youtube.com/watch?v=2t3fyftu\\_CY](https://www.youtube.com/watch?v=2t3fyftu_CY))

**Marta:** Ala ze bitxia, etxe oso handiak dira eta gehienetan animalia asko daude!

**Alaitz:** Joe zelako zelaiak dituzte bertan eguzkia hartzeko, eta mendietatik gertu egoten dira, oso politak! Bertan klasekide guztiak joan gaitezke eta oso ondo pasatuko genuke!

**Amaia:** Bai, baserri batera joatea oso ideia ona izango litzateke! Gutako askok ez ditugu ezagutzen eta gauza asko ikusi ahalko genituen!

**Aitor:** Bai ideia bikaina! Baserrietako animaliak ikusteko aukera ederra izango zen, Gasteizen ez ditugula behirik ezta zaldirik ikusten...

**Maialen:** Bai mesedez! Oso polita izango litzateke animaliekin egotea eta mendira joatea guztiak!

**Irakaslea:** Baina zer esaten duzue? Baserri batera joatea bizpahiru egun inguru berriak ezagutzera eta naturarekin harremanetan egotera?

**Amaia:** Bai! Mesedez!

**Aitor:** Bai!

**Josune:** Bai mesedez! Aurten ez dugu egin irteerarik eta asko gustatuko litzaike!

**Irakaslea:** Joe, ez nuen uste interes handia jarriko zenutenik ideia honekin! Niri ere aukera ona iruditzen zait naturatik gauza berriak ikasteko eta zuen artean esperientzia berriak bizitzeko, baina nora joan gaitzke?

**Markel:** Ni duela bi urte Sastarraingo baserri-eskolan egon nintzen udalekutan eta ikasturtean zehar ikastetxeak joaten dira egun batzuk hara pasatzera! Bertan bilatu ahal dugu informazioa eta autobusez joan gaitzke!

**Irakaslea:** Ah bale, baina horretarako gauza asko behar ditugu... Zer uste duzue falta dela irteera posible izateko? Altxatu eskua parte hartzeko!

**Aitor:** Lehenik eta behin gurasoen baimena joateko, ezta?

**Aitana:** Eta ikastetxearen baimena ikastetxetik kanpo egun batzuk joateko?

**Irakaslea:** Bai, ados nago bi ideia horiekin! Ikastetxearen eta gurasoen baimena behar dugu irteera egin ahal izateko. Zer gehiago behar dugu?

**Iraitz:** Baserri-eskolaren onarpena, ezta? Ea gu joango garen egunak libre dauden jakiteko.

**Ane:** Eta autobusa zer? Horri buruzko informazioa beharko dugu hara joateko, ez?

**Aitor:** Aiba egia da! Hori ere bai beharrezkoa da!

**Maialen:** Bai! Orduan ikastetxearen eta gurasoen baimena, baserri-eskolaren informazioa eta autobusaren informazioa bilatu beharko dugu, edo zer?

**Aitor:** Bai! Orduan gurasoei eta ikastetxeko zuzendariari gutun edo mezu bat idatzi beharko diogu haiek jakiteko zer egingo dugun, ez?

**Irakaslea:** Horixe da! Nola egingo dugu modu ordenatuan?

**Amaia:** Nik proposatzen dut taldeka jartzea eta talde bakoitzak zeregin bat egitea, horrela taldeka lan egingo dugu!

**Irakaslea:** Perfekto! Horrela nahi baduzue saiatuko gara ea baimena ematen diguten. Momentuan zuek 6ko taldeak egin eta aukeratu zer egingo duzuen!

**Ane:** Gure taldeak gurasoei bidaliko dio mezua esanez nora eta zer egin nahi dugun, eta zertarako joan nahi dugun!

**Alex:** Ba guk egingo diogu ikastetxeko zuzendariari gutuna egin nahi duguna komentatzeko!

**Josune:** Ba orduan guk bilatuko dugu baserri-eskolako informazioa eta komentatuko diegu zer egin nahi dugun!

**Maite:** Ondo, orduan guk autobusari buruzko informazioa bilatuko dugu!

**Irakaslea:** Oso ondo! Baina lehenik eta behin gure artean adostu beharko dugu zenbat egun joango garen, ezta?

**Amaia:** Aste bat!

**Aitor:** Alaaa, hori gehiegi da, hobeto joatea bi egun eta gau bat, emango digula denbora gauza asko egiteko!

**Josune:** Hobeto hiru egun eta bi gau goaz! Horrela izango dugu denbora gauza gehiago inguru hori ikusteko eta ikasteko!

**Irakaslea:** Ados! Niri hiru egun joatea ondo iruditzen zait, eta zer ikusi nahiko zenuten?

**Maite:** Baserriko eta naturako animaliak! Zaldiak, behiak, ardiak....

**Inaxio:** Mendietako zuhaitzak eta landareak!

**Alvaro:** Niri baserriko baratzea ikustea gustatuko litzaidake! Eta mendietako animaliak ikustea ere!

**Ane:** Bai! Animalia asko ikusteko aukera izango dugu!

**Irakaslea:** Oso ondo! Zuen interes handia ikusten dut! Beraz, aipatutakoa gure mezuetan idatziko dugu ikastetxeak, gurasoek eta baserriak jakiteko zer landu nahi dugun! Has zaitetze paper batean idazten, zalantzarik baduzue esaidazue eta lagunduko zaituztet! Animo talde!

*\* Ikasleak taldeka 1.jarduera garatzen eta mezuak idazten hasi dira, geroago guztion artean zuzenduz\**

1.JARDUERA			
<b>JARDUERA</b>	<b>BAIMENA IDAZTEA</b>	<b>DENBORA</b>	30 minutu
<b>MATERIALA</b>	- Papera - Boligrafoa	<b>TALDEKATZEA</b>	5eko taldeak
<b>AZALPENA</b>			
<p>Talde handian baserri-eskolara joatearen ideia atera ondoren, taldeka banatuta talde bakoitzak baimen-orriaren zirriborro bat idatzi beharko du (ikastetxeari, gurasoei, autobus-enpresari edo baserri-eskolari).</p> <p>Ikasleentzako lagungarria izateko arbelean galdera batzuk idatziko dira horiek erantzuteko eta lortu nahi duguna argi azaltzeko.</p>			
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Egoera erreal batetik abiatuta idazki formal bat idaztea.</li> <li>* Taldean lan egitea.</li> <li>* Bakoitzaren iritzia errespetatzea eta interesak partekatzea.</li> <li>* Guztion artean adostasunera heltzea zer landu nahi den zehazteko.</li> </ul>		

<b>OHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Arbelean idatzitako galdera lagungarriak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Nortzuk gara? Zer egin nahi dugu? Zergatik nahi dugu hori? Zenbat egun joan nahi dugu?</li> </ul> </li> <li>● Gomendagarria izango da arbel digitalean baimen-orri baten adibide bat jartzea, jarraitu beharreko pausuak ezagutzeko.</li> </ul>
----------------	---

2.JARDUERA			
<b>JARDUERA</b>	<b>FORMALTASUNEZ AZALTZEA!</b>	<b>DENBORA</b>	30 minutu
<b>MATERIALA</b>	- Papera - Boligrafo - Ordenagailua	<b>TALDEKATZEA</b>	Talde handian eta 5eko taldeetan
<b>AZALPENA</b>			
<p>Behin talde guztiek idatzi baimen-orriaren zirriborroa, taldekide batek ozen irakurriko du eta guztion artean hobetu beharrekoa zuzenduko da. Gehitu beharrekoa aipatuko da eta garbira pasatuko da.</p> <p>Zuzenketak egin eta txukun idatzi ondoren, idazkaritzara bidaliko da gutuna eta ikasle guztien sinadurarekin entregatuko du klaseko arduradunak.</p> <p>Gurasoei, baserri-eskolari eta autobus-enpresari bidali beharreko mezuak ordenagailuz idatziko ditu talde bakoitzeko arduradunak eta emailez bidaliko dira.</p>			
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Guztion parte hartzearekin zuzenketak egitea.</li> <li>* Gutun bat idazteko beharrezkoak diren ideiak aipatzea eta formaltasunez idaztea.</li> </ul>		
<b>OHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Guraso guztiei komunikatzeko, irakasleak ondo begiratuko ditu idatzitako korreo elektronikoak dena ordenean egoteko.</li> </ul>		

### 2021eko maiatzaren 4a, asteartea:

#### 2.SAIOA

#### 2.elkarrizketa: ikasleek irteeraren planifikazioa adosten dute:

**Irakaslea:** Bueno ba, zailena lortu dugu: ikastetxearen onarpena daukagu eta Sastarraingo baserri-eskolak esan digunez, nahi dugun egunean joan gaitezke. Oraindik gurasoen baieztapen batzuk behar ditugu, beraz, etxera iristean esan beharko diezue mezua irakurri behar dutela eta lehenbailehen erantzutea. Orduan zuek adostu duzuen moduan, hiru egun joango gara! Zer egin beharko dugu orain?

**Martin:** Planifikazioa egin beharko dugu, ezta? Apuntatzen ditugu arbelean egin nahi ditugun jarduerak eta gero joaten gara ordenatzen egunero, ez? \*3.jarduera\*

**Aitor:** Ni mendira joan nahi nuke, gainera, hor animaliak eta landareak ikusteko aukera izango dugu!

**Aitana:** Bai, ideia ona da, eta Ekaingo kobazuloetara joan gaitzke bidean argazki batzuk ikusi ditugula eta itxura harrigarria dute!

**Ainhoa:** Niri gustatuko litzaidake baserriko animaliekin denbora pasatzea, web orriko argazkietan ikusi dira ardiak, behiak, txerriak, untxiak, oiloak, zaldiak, poniak...

**Amaia:** Eta baratzara joatea! Agian ematen digute aukera zeozer landatzeko! Tomateak!

**Ane:** Bai! Baserri-eskolakoek esan ziguten oraindik oso gutxi landatu dutela eta nahiko bagenu haiei lagundu ahal geniela zeozer landatzen (letxugak, tomateak...).

**Aitor:** Ze ondo! Nire aitonak egiten duen bezala! Patatak eta letxugak landatzeko aukera izango dugu!

**Alex:** Niri gustatuko litzaidake inguru horretako landareak eta zuhaitzak aztertzea, etxean landare asko ditut eta asko gustatzen zait horien hostoak eta formak begiratzea!

**Aitana:** Bai, baserrietatik landare eta lore asko aurki ditzakegu eta oso politak izaten dira!

**Irakaslea:** Ados! Aipatutakoa apuntatuta dago eta momentu bakoitzean egingo duguna kokatu beharko dugu! Zeozer gehiago nahi duzue egin?

**Josune:** egin ahal ditugun jardueretan agertzen da ogia edo gazta egiteko tailerra dagoela! Niri asko gustatuko litzaidake egitea eta tailer dinamikoa izango litzateke!

**Martin:** Bai! Ni Argiñano bezalakoa naiz sukaldaritzan, asko gustatzen zait gurasoei laguntzea!

**Ane:** Bai! Tailer interesgarria izan daiteke, eta horrela ezagutu ahal dugu nola lan egiten zuten antzinean baserrietan eta etxera eraman ahalko dugu guk egindakoa!

**Alaitz:** Eta afaldu ostean gaubelak egingo ditugu? Udalekuetan bezala gauetan jolas batzuk!

**Inaxio:** Baserri-eskolako web orrian gaubelak egiteko aukera zegoela jartzen zuen, eta gauak dibertigarriak izateko aukera ederra izan daiteke! Gainera, hango monitoreek prestatzen dituzte eta seguruenik onak izango dira!

**Irakaslea:** Ados! Ba gauean gaubelak egongo dira, apuntatuta!

**Maite:** Gauza bat, argazki-kamera eramateko aukera izango dugu? Horrela argazki asko egin ahalko ditugu oroitzapen bezala izateko!

**Alvaro:** Bai mesedez! Eta argazki horiekin bilduma bat egin ahal dugu, gure argazkiekin, egindakoarekin eta ikusitako animali edo landareekin!

**Irakaslea:** Nigatik ederki! Ideia oso ona iruditzen zait argazkiak ateratzea eta gero bilduma bat sortzea! Oroitzapen oso ona izango dugu guztiok eta horretatik asko ikasiko dugu! Baina hori bai, argazki-kamerak ondo erabili beharko dira, ondo zaindu eta modu egokian erabili beharko dira.



**Maite:** Bale, ederki!

**Irakaslea:** Bueno, hurrengo ideiak apuntatu ditugu: mendira joatea, Ekaingo kobazuloetara joatea, baserriko animaliekin egotea, landareak eta zuhaitzak ikustea, baratzean laguntzea, eta gazta edo ogia ekoiztea. Nola antolatuko ditugu jarduerak?

**Ane:** Jakinda hiru egun egongo garela, eta goizean iritsiko garela ondo ikusten dut lehenengo eguna baserri-eskolaren ingurua ezagutzea eta bertako gauzekin jolastea.

**Amaia:** Bai, hango animaliak ezagutzea eta baratzean laguntzea ideia ona da!

**Mikel:** Nik ere ondo ikusten dut, lehenengo kontaktua denez inguru hori esperimintatzea ondo etorriko zaigu!

**Irakaslea:** Ados, orduan lehenengo egunean baserri-eskolatik egongo gara, inguru berria ezagutzen eta hango gauzak aztertzen! Bigarren egunean?

**Aitor:** Bigarren egunean mendira joan eta Ekaingo kobazuloak bisitatzera joan gaitzke! Eta ibilbide horretan animalia eta landare asko aurkituko ditugu argazkiak egiteko eta hauen itxura aztertzeko!

**Josune:** Bai ideia ona da! Horrela egun osoa pasa dezakegu kanpoan eta arratsalderako bueltatu ahal gara baserri-eskolan jolasteko!

**Aitor:** Baserri-eskolaren informazioa begiratzen aritu ginenean jartzen zuen egunean zehar kanpoan egongo bagina eramateko bazkaria hartu ahal genuela, bokata, ura eta fruta! Beraz, egun horretako bazkaria badugu!

**Irakaslea:** Ondo, plangintza ona ikusten dut! Hori bai, menditik bueltan dutxatu beharko gara gure gorputza garbi izateko eta higiena zaintzeko! Ongi, eta orduan azkenengo egunean, zer egingo dugu?

**Martin:** Ba azken eguna gazta eta ogia ekoizteko tailerra! Horrela, bazkaldu ostean bueltatzen garenean etxera eramateko aukera izango dugu, eta familiarentzako oparia izango dugu!

**Iraitz:** Hori da! Eta hurrengo egunean klasean egin ahal dugu bilduma ateratako argazkiekin!

**Maialen:** Bai, nik oso plangintza ona ikusten dut! Horrela jarduera ugari egin ahal izango ditugu eta ikusitako guztiaren inguruan bilduma polit bat egin ahalko dugu!

**Irakaslea:** Nire aldetik oso ondo ikusten dut irteera! Guztion artean adostutako plangintza inprimatuko dut eta etxera eramango duzue gurasoek jakiteko zer egingo dugun!

**Inaxio:** Baina oraindik falta zaigu diruaren kontua ez? Edo dohainik izango da irteera?

**Irakaslea:** Horixe da! Oraindik jakin beharko dugu zenbat ordaindu beharko duen ikasle bakoitzak!

**Martin:** Idatzi ahal dut arbelean jarduera bakoitzaren prezioak? Horrela izango ditugu arbelean datu guztiak!

**Irakaslea:** Bai, aurrera! Gogoratu ikastetxeak 400€ eman dizkigula irteera aurrera eramateko.

**Martin:** Bai, eta baserri-eskolan esan ziguten %15aren deskontua egingo zigutela talde handia izateagatik!

**Ane:** Binaka jar gaitezke problema ebazteko?

**Irakaslea:** Bai! Jarri binaka zaudeten moduan eta ebatzi buruketa! Kontuan izan egiten diguten deskontua, hori ez dugu ordaindu behar! Zalantzak izanez gero beste bikote batzuei galdetu zuen artean laguntzeko, animo!

*\* Ikasleak 4.jarduerarekin hasi dira buruketa planteatzen eta ebazten.*

3.JARDUERA			
<b>JARDUERA</b>	<b>JARDUEREN PLANIFIKAZIOA!</b>	<b>DENBORA</b>	20 minutu
<b>MATERIALA</b>	-	<b>TALDEKATZEA</b>	Talde handian
<b>AZALPENA</b>			
<p>Guraso guztion onarpena izanda, ikastetxeak baserri-eskolara joateko baimena eman ondoren, eta Sastarraingo baserri-eskolaren erabilgarritasuna jakinda guztion artean hiru egun horietan egingo dena adosteko momentua da, planifikazioa egiteko unea.</p> <p>Baserri-eskolako erakundeak jarduera batzuk eskaini dizkigu adibide batzuk izateko eta askatasun osoa eman digute nahi duguna aurrera eramateko.</p> <p>Adibide horien artean: mendira joatea, Ekain kobazuloetara joatea, baserriko inguruak ezagutzea (animaliak, landareak, baratzea...), gaubelak... Ikasleek aukeratuko dute zer egin egun bakoitzean eta taula batera pasako dute guztia.</p>			
<b>HELBURUAK</b>	<p>* Guztion artean zer landu nahi dugun adostea.</p> <p>* Adostasunera heltzea planifikazioa egiteko.</p>		

4.JARDUERA			
<b>JARDUERA</b>	<b>AURREKONTUA!</b>	<b>DENBORA</b>	20 minutu
<b>MATERIALA</b>	- Papera - Arkatza	<b>TALDEKATZEA</b>	Binaka
<b>AZALPENA</b>			

Hiru egun horietan landuko ditugun jarduerak aukeratu eta planifikatu ondoren, aurrekontua egitea beharrezkoa da.

Horretarako, landuko diren jardueren prezioa jakinda, hurrengo buruketa ebatzi beharko dute ikasleek ikasle bakoitzak ordaindu behar duena jakiteko.

- *Honakoak dira ordaindu beharreko jarduerak ikasle bakoitzeko:*
  - *3 egun pentsio osoan (2 gau) = 65€*
  - *Baseri-eskolako jarduerak (ogia/gazta egitea, kobazuloetara monitoreekin...)= 10€*
  - *Autobusa= 8€*

*Kontuan izan behar da ikastetxeak 400€ eman dizkigula irteera aurrera eramateko, eta baseri-eskolan %15aren deskontua egin digutela talde-handia izateagatik.*

*\* Zenbat ordaindu beharko du ikasle bakoitzak?*

**HELBURUAK**

\* Binaka buruketa erreala planteatzen jakitea eta erantzun zuzena lortzea  
\* Bikoteka lan egiten jakitea.

**OHARRAK**

- Buruketa erreal hori ebazteko gomendagarria izango da aurrez aldetik guztion artean irakurtzea eta ondo ulertzea.

.....

**Inaxio eta Maite:** Amaitu dugu buruketa!

**Irakaslea:** Ondo, itxarongo dugu apurtxo bat bestek amaitzeko, bestela lagundu zailtasunak dituen beste bikote bati!

**Aitor:** Azkenean lortu dugu! Guztiok lortu dug! Guztira 54,35€ ordaindu beharko du ikasle bakoitzak hiru egunengatik!

**Irakaslea:** Horixe da, emaitza zuzena! Beraz, ikasle bakoitzak 54,35€ ordaindu beharko ditu irteera honengatik! Gaur asteartea da, eta irteera hurrengo astelehenetik asteazkenera egingo dugunez, gurasoek ordainketa egin beharko dute nik emango dizuedan kontu korrontera! Ez ahaztu gurasoei ematea papera, bestela ezin izango duzue joan! Esan gurasoei ordainketaren agiriaren kopia ekarri behar duzuela.

**Aitana:** Bale ederto! Nahi baduzu ni joango naiz apuntatzen nork ordaindu duen irteera!

**Irakaslea:** Ados! Beraz, egunero gogoratzen joango naiz eta agiriaren kopia daukazuenean Aitanari emango diozue ordaindu duzuela apuntatzeko! Oso ondo talde! Lan bikaina egin dugu orain arte, hurrengo astean hobeto pasatuko dugu ekintza guztiekin!

**IRTEERAKO 1.EGUNA**

**2021eko maiatzaren 10a, astelehena**

<b>ORDUA</b>	<b>ZEREGINAK</b>
<b>10:00</b>	Ikastetxetik autobusa hartu eta baserri-eskolarantz abiatuko gara!
<b>11:30</b>	Baserri-eskolara iritsi, motxilak utzi eta baserriko arauak zeintzuk diren ulertuko ditugu arazorik ez egoteko egunean zehar.
<b>12:00</b>	Instalazio berriko guneak ezagutuko ditugu (jangelak, baratzeak, ukuilua...) eta ingurunea esperimentera joango dira ikasleak bertan jolasean aritzeko.
<b>14:00</b>	Bazkaltzeko unea! Jangelan nahi duten taldeetan elkartuko dira eta bazkalduko dute baserri-eskolako menua.
<b>16:00</b>	Bazkaldu ostean, hortzak garbitu eta denbora libre izango dute ikasleek nahi dutenera jolasteko. Ingurua gehiago ezagutzeko eta naturarekin harremanetan egoteko aukera izango dute. Ondoren, monitoreekin baserriko animaliak aztertzerako joango dira: ardiak, behiak, txerriak, untziak, oiloak, zaldiak... eta hauen inguruko informazio nagusia ezagutuko dute. Argazkiak ateratzeko aukera izango dute.
<b>17:30</b>	Merienda jateko orduan kaleko aterpean elkartuko dira ikasle guztiak eta jaten duten bitartean, ikusitako animalien inguruan hitz egingo dute. Irakasleak hurrengo galderak egiten dizkie ikasleentzat hausnarketa bultzatzeko: "Zeintzuk izan dira gehien gustatutakoak? Zein gustatuko litzaizuke egunero zaintzea baserri batean biziko bazina? Zeintzuk izango litzateke animalia hauek izatearen abantailak eta desabantailak? Gustatuko litzaizuke horrelako etxe batean animaliekin bizitzea?..."
<b>18:00</b>	Baratza eta negutegiak ezagutuko dituzte ikasleek, landatzen den guztia aztertuko dute, eta baratzen inguruko ezagutza eta estrategia esanguratsuenak esperimentera joango dira. Ikasleak taldeka elkartuko dira, lurran laguntzeko eta landatzeko aukera izango dute, prozesuaren protagonistak sentituz.
<b>19:30</b>	Egun osoa mugimenduan egonda, higiena zaintzeko aldageletan dutxatuko dira ikasleak. Dutzak generoaren arabera bereizita daude arazorik ez egoteko, eta irakasle nahiz monitorean artean neska bat eta mutil bat dagoenez, guztiei

	<p>laguntzeko aukera izango dute.</p> <p>* OHARRA: Gerta daiteke ikasleren bat zailtasunak izatea edo lotsa sentitzea hasieran, eta horretan lagundu beharko dute nagusiek.</p>
<b>20:00</b>	<p>Dutxa ostean, ingurunetik jolasteko aukera izango dute ikasleek afaldu baino lehen. Baserri-eskolatik mugitzeko eta esperimintatzeko aukera izango dute lagunekin.</p>
<b>21:00</b>	<p>Nahi duten taldeetan eseriko dira jangelan afaltzeko, eta menuko afaria jan beharko dute.</p> <p>*OHARRA: Ikasleek jakin beharko dute platerrean dagoena jan egin behar dela, nahiz eta guztiz ez izan gustokoena. Menu aberasgarria eta askotarikoa eskaintzea bilatzen da, ikasleek behar duten mantenugaiak hartzeko. Gerta daiteke, familia batzuetan baliabide eta aukera ugari ez izatea janari ezberdinez elikatzeke, eta menu hauekin janari-aniztasuna bilatzen da.</p>
<b>22:00</b>	<p>Gaubela musikala → aterpean monitoreen laguntzaz.</p> <p>Kutxa batean mota askotako frogak edo erronkak idatzita daude paper batzuetan. Ikasleak lurrean eseriko dira borobil bat egiten eta musika jarriko da bozgorailuan. Musika entzuten den bitartean ikasleak eskutik-eskura kutxa pasatzen arituko dira eta musika gelditzean esku artean duen ikasleak irakurri beharko du barruko papertxo bat, dagokion froga eginez. Erronka egin ostean berriro musika jarriko da eta eskutik-eskura kutxa pasatzen joango dira.</p> <p>Frogen adibideak: bikote bat aukeratu eta abesti bat dantzatu, ipurdiarekin zure izena irudikatu, abestu nahi duzun abestia...</p>
<b>23:00</b>	<p>Lo egitera!</p>

## IRTEERAKO 2.EGUNA

2021eko maiatzaren 11, asteartea

ORDUA	ZEREGINAK
<b>09:00</b>	<p>Esnatu eta gosaltzera joango dira ikasleak eguna energiaz hasteko!</p>

<b>10:00</b>	<p>Mendira joateko beharrezkoak diren gauzak guztion artean adostu eta motxilak prestatuko dituzte ikasleek. Motxilaren barruan hurrengoak eramango dute: kantinplora, bokata, fruta, argazki-kamera (izanez gero) eta koaderno bat zeozer apuntatu nahi badute.</p> <p>Dena prest izatean mendirantz abiatuko gara naturatik ibiltzera eta inguru berriak ezagutzera.</p> <p>Ibilbidean zehar naturako landaredia eta animaliak aztertzeko aukera izango dugu. Gurekin baserriko monitore bat etorriko da ingurua ezagutzen duena eta zonaldeko inguru esanguratsuak ikustera joango gara!</p> <p><b>*OHARRA:</b> Naturako ingurua zaintzearen garrantzia nabarmenduko da, dena garbi mantentzeko eta eremua errespetatzeko. Naturekiko eta pertsonetikiko errespetua izatea oso beharrezkoa da guztiontzako, eta hori ikastea bultzatuko da.</p>
<b>13:30</b>	<p>Natura-ingurutik ibilbide ederra ikusi ondoren, zelai zabal batean geldituko gara eta egurrezko mahaietan bazkalduko dugu guztiok ekarritako bokata eta fruta. Amaitu ostean, ingurutik lasai egoteko denbora libre izango dute eremu berria esperimendatzeko.</p>
<b>15:30</b>	<p>Bazkaldu den espazioa garbituko dugu guztion artean eta Ekaingo kobazuloetara abiatuko gara hori aztertzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>DINAMIKA:</b> zelai horretatik hasita pista batzuk jarraitzen joango da talde osoa eta pista horietan jarduera batzuk adieraziko dira, taldean egin beharko direnak. Pista horiek kobazuloetara eramango dute taldea eta ondoren, baserri-eskolan amaituko dira. Honen bitartez ibilbidea interesgarria eta erakargarriagoa izatea bilatuko da. <p>Pista-jardueren adibideak: bata bestearen gainean talde txikietako piramideak sortzea, hurrengo pistaraino guztiak eskutik helduta joatea, bost zuhaitz ezberdinetako hostoak berreskuratzea...</p> </li></ul>
<b>18:00</b>	<p>Kobazuloak ikusi eta gero, baserri-eskolara bueltatuko gara pistak jarraituz eta ingurunea aztertuz.</p>
<b>19:30</b>	<p>Baserri-eskolara iristean, dutxatzera joango dira ikasleak. Ostean, denbora libre izango dute inguruetik afaltzeko ordura arte.</p>
<b>21:00</b>	<p>Afaltzera!</p>

<p><b>22:00</b></p>	<p>Gaubela → furor gaua!</p> <p>Ikasleak hiru taldeetan banatuko dira eta izen bat adostuko dute taldea izendatzeko.</p> <p>Txapelketa moduko dinamika bat izango da, taldeka lehiatuko dena jarduera batzuen arabera.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>1.jarduera:</b> hitz bat esango da (adibidez, eguzkia) eta hitz horrekin lotutako abestiak abesten joango dira taldez talde ordenean. Talde batek esatean hurrengoaren txanda izango da, eta abesti gehiago ezagutzen ez duen talde taldea eliminatuko da, azkenak puntua irabaziz.</li> <li>- <b>2.jarduera:</b> txisteak! Talde bakoitzeko taldekide batek txiste laburra kontatuko du eta hurrengo taldearen txanda izango da. Talde batek ez duenean txiste gehiago ezagutzen eliminatuta geratuko da eta azkena geratzen dena puntua irabaziko du.</li> <li>- <b>3.jarduera:</b> karaoke! Ordenagailuan euskal abesti batzuk jarriko dira letrarekin eta talde osoak abestu beharko du erritmoa jarraituz. Hiru taldeek abestean ikasleek erabakiko dute ze taldek irabazi duen puntua. Adostasunera iristen ez badira, beste abesti batzuk jarriko dira.</li> <li>- <b>4.jarduera:</b> asmakizunak! Asmakizunak kontatuko dira eta ezagutzen duen taldekideek besteek baino azkarrago altxatu beharko dute eskua erantzuna emateko. Ondo eginez gero, puntu bat gehituko zaio taldeari eta beste txanda batzuk egingo dira.</li> </ul> <p>Dinamikarekin amaitzeko guztien parte hartzea eskertuko da eta puntuazioa zenbatuko da, nahiz eta saririk edo irabazlerik ez egon.</p>
<p><b>23:00</b></p>	<p>Lo egitera!</p>

### IRTEERAKO 3.EGUNA

2021eko maiatzaren 12a, asteazkena

ORDUA	ZEREGINAK
<p><b>09:00</b></p>	<p>Esnatu eta gosaltzera joango gara azken eguna energiari hasteko!</p>
<p><b>10:00</b></p>	<p>Baserriko animaliekin eta zuhaitzekin jolasean ibili, eskuragarria duten materiala erabiliz.</p>

<b>10:30</b>	<p>Baserriko animalien esnea eta nekazaritzako elikagaiak erabiliz gazta eta ogia egiteko tailerra gauzatuko dute ikasleek. Prozesuaren parte izango dira eta haiek arituko dira produktu hauek egiten baserriko antzinako sukaldean.</p> <p>Historiako datu batzuk ezagutu, jarraitu beharreko pausuak ulertu, eta guztion artean elikagaiak prestatzen arituko dira bertan erabiltzen diren teknikak jarraituz.</p> <p>Bi taldeetan banatuko da taldea, alde batean gazta egiten arituko dira, eta bestean, ogia. Prozesua egitean, aldaketa egingo dute eta bi taldeek bi tailerrak egiteko aukera izango dute.</p> <p>* Gazta egiteko egun asko behar direnez, baserri-eskolarekin adostu dugu gaztak heltzen direnean gure eskolara bidaliko dituztela. Ogia aldiz, autobusa hartu aurretik hartzeko aukera izango dugu.</p>
<b>14:00</b>	Bazkaltzera!
<b>15:00</b>	Ikasleek motxilak egingo dituzte dena jasotzeko. Baserri-eskolan erabilitako materiala gordeko da eta guztion artean zikindutakoa garbituko dugu dena garbi mantentzeko.
<b>15:30</b>	Autobusa hartu eta berriro ikastolara bueltatuko gara etxera joateko.
<b>16:30</b>	Ikastolara iritsiko gara eta familiekin elkartuko gara egun hauetan egindakoa kontatzeko!

---

### 2021eko maiatzaren 13a, osteguna:

#### 3.elkarrizketa, irteeratik bueltan:

**Irakaslea:** Egun on guztioi! Berriro klasean gaude! Zer moduz bizitako esperientzia?

**Aitana:** Esperientzia bikaina izan da! Aukera paregabea izan dugu jarduera ugari egiteko eta naturako ingurutik gauza asko ikasteko!

**Ane:** Bai! Egun oso politak izan dira baserri-eskolan, gauza berri asko ikusi ditugu eta ikastetxeko egoeratik mugitzeko aukera bikaina izan dugu!

**Aitor:** Egia esanda esperientzia oso ona izan da naturatik ezagutza gehiago izateko eta gure artean denbora gehiago pasatzeko! Hiru egun jarraian egon gara talde osoa jarduera ezberdinak egiten, eta oso dibertigarria izan dira egun guztiak! Horrelako irteera gehiago egin behar ditugu!



**Amaia:** Bai egia da, gure artean oso ondo aritu gara, ez dugu izan gatazkarik eta egun oso politak bizi ditugu! Talde kohesioa indartzeko aukera ona izan dela uste dut, gainera, naturako gauza asko ikusi ditugu eta argazki asko ateratzeko aukera izan dugu!

**Inaxio:** Nik ere ikusi dut irteera oso aberasgarria! Lehenengo gaua apur bat beldurra nuen eta etxera joan nahi nuen, baina gero oso pozik egon naiz egunetan zehar.

**Josune:** Bai, egun oso politak izan dira guztiontzako! Ikasteko beste modu bat dagoela ikusi dugu eta askoz motibagarriagoa da! Orain, inprimatu ditugun argazkiekin zer egingo dugu?

**Maialen:** Esan genuen album bat egingo genuela, ezta? Horrela, egun hauetan ikusi duguna itsasteko aukera izango dugu!

**Alvaro:** Bai! Eta argazki bakoitzaren alde batean edo azpian horren inguruko deskribapen bat egin ahal dugu zer dagoen adieraziz!

**Aitana:** Hori da! Horrela jakingo dugu zer den gauza bakoitza eta non ikusi genuen. Eta albuma amaitzeko, nik proposatzen dut hausnarketa orokorra egitea izandako esperientzia kontatzeko.

**Irakaslea:** Oso ondo! Ekimen oso ona egindakoaren hausnarketa kritikoa egiteko!

**Aimar:** Gauza bat, hausnarketan laguntzeko, jarri ahal dizkiguzu galdera batzuk horiek erantzuteko eta errazagoa izateko?

**Irakaslea:** Bai, noski! Arbelean idatziko ditut galdera batzuk erantzuten joateko! Beraz, inprimatutako argazkiak moztu, eta itsatsi ekarri dituzuen albumetan, eta idatzi iruzkinen bat ikusten dena aipatuz! Oso ondo, animo talde!

*\* Ikasleak 8.jarduerarekin hasi dira albuma garatzen.\**

8.JARDUERA			
<b>JARDUERA</b>	ALBUMA SORTZEN!	<b>DENBORA</b>	45 minutu
<b>MATERIALA</b>	- Album hutsa - Argazkiak	<b>TALDEKATZEA</b>	Banaka
<b>AZALPENA</b>			
<p>Ikasleek etxetik ekarriko dute album huts bat eta ahal izanez gero baserri-eskolan egindako argazkiak inprimatuta ekarriko dituzte. Bestela, ikastetxean inprimatzeko aukera izango dute guztiek argazkiak izateko.</p> <p>Argazkiak izanda, albumean itsasten joango dira haiek nahi duten moduan, eta haien ondoan hausnarketa edo iruzkin bat idatzi beharko dute (zein animalia den, non ikusi duen, zelako forma duen zuhaitzak edo landareak...).</p> <p>Albumaren amaieran hausnarketa orokorra egiteko galdera batzuk erantzun beharko dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zer moduz pasatu ditut egunak?</li> </ul>			

<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Zelan sentitu naiz baserri-eskolako ingurunean?</i></li> <li>- <i>Zelan sentitu naiz lagunekin eskolatik kanpo?</i></li> <li>- <i>Erakargarriagoa eta aberasgarriagoa izan da baserria ikastetxea baino? Zergatik?</i></li> <li>- <i>Modu egokia da naturatik ikastea? Zergatik?</i></li> <li>- <i>Gustatuko litzaizuke baserri-eskola batean ikasturtean zehar ikastea?</i></li> <li>- <i>Zer izan da gehien gustatutako jarduerak? Eta gutxien?</i></li> <li>- <i>Zer hobetuko zenuke? Zergatik?</i></li> </ul>	
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Ikusitakoaren inguruan hausnarketa kritikoa egitea.</li> <li>* Argazkien inguruan iruzkin bat egitea ikusitakoa komentatuz.</li> <li>* Egindakoaz gogoratzea.</li> </ul>

.....

**Inaxio:** Orain daukagula garatuta gure albumak ezin diegu erakutsi txikiei? Nire anaia Haur Hezkuntzan dago eta bere gelara joan nahiko nuke erakustera!

**Aimar:** Bai, mesedez! Nik ere erakutsi nahi diot nire arrebari! Ilusio handia egiten dit erakustea eta horrela guztiek jakingo dute zer ikusi dugun egun hauetan!

**Aitana:** Joe, niri lotsa handia ematen dit besteen aurrean hitz egitea... baina beste batzuekin baldin banoa saiatuko naiz!

**Amaia:** Bai, binaka joan gaitezke aurkezpenak egitera! Ni zurekin joango naiz!

**Martin:** Ondo, ideia polita ikusten dut! Horrela txikiekin egon ahalko gara minutu batzuk komentatzen egin duguna!

**Irakaslea:** Bale! Ederra ikusten dut, horrela nagusiak sentituko zarete eta erakutsi ahalko diezue egun hauetan ikusi duguna! Ba egin nahi dituzuen bikoteak eta prestatu bost minututan esango diezuna beste ikasleei! Egiten duzuen aurkezpenetan aipatu ahal duzue zer ikusi duzuen, nola sentitu zareten, zer ikasi duzuen edo nahi duzuen!

**Maialen:** Ondo, eta gero egun batzuk utzi ahal ditugu gure bildumak ikastetxetik ikasleek ikusteko eta begirada bat emateko argazkiei!

**Irakaslea:** Ados! Ideia oso onak izaten ari dituzue eta aurrera eramango ditugu! Lehenik eta behin elkartu hirukoteka eta pentsatu esango diezuen txikiei!

*\* Ikasleak binaka elkartu dira eta 9.jarduerarekin jarri dira aurkezpenekin. \**

9.JARDUERA			
<b>JARDUERA</b>	TXIKIEI AURKEZPENA	<b>DENBORA</b>	20 minutu
<b>MATERIALA</b>	Egindako albumak	<b>TALDEKATZEA</b>	Binaka
<b>AZALPENA</b>			
<p>Ikasleek Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1.zikloko ikasleei egun hauetan ikusitakoaren inguruko aurkezpen bat egitea proposatu dute.</p> <p>Nahi izan duten bikoteetan elkartu dira eta egindako albuma beste ikasleei erakustea erabaki dute, baserri-eskolako esperientziak kontatzeko.</p> <p>Ondoren, albumak ikastetxeko txoko batzuetan jarri dituzte ikasleek ikusi ahal izateko.</p>			
<b>HELBURUAK</b>	<p>* Ikasleei aurkezpen bat egitea eta kontatzea irteeran egindakoa.</p> <p>* Besteen aurrean lotsa kentzea.</p>		

## 5. ONDORIOAK

Lan honetan zehar ikusi dugun bezala, Ovide Decroly pedagogoa hezkuntzaren munduan nagusitasun handia izan du, ikaskuntza prozesua aldatzeko eta hobetzeko ahalegin handiak egin zituen eta eskolaren funtzioa beste ikuspuntu batez ikustea lortu zuen. Irakaslearen rola alde batera utzi zuen eta ikasleei autonomia eman zien, prozesuaren protagonistak sentituz eta jardueretan haien interesak kontuan hartuz. Ikasleen beharretan oinarritutako ikaskuntza bultzatzea erabaki zuen, haien kuriositateak abiatuta egunerokotasuneko jarduerak garatuz eta aktiboki lan eginez.

Historian zehar Decrolyk garatutako ideiak oso esanguratsuak izan dira eta Belgika, Ingalaterra, Danimarka nahiz beste herrialdeetako eskoletan bere printzipioak aurrera eraman ziren, eskola tradizionalaren ideiak alde batera urtuz. Agredaren esanetan (2005), hezkuntzaren ikuspuntua aldatzeak herrialde ezberdinen interesa piztu zuen eta eskola askotan bere metodoa jarraitzea erabaki zuten. Metodo horren gorakada urte asko egon da herrialde ezberdinetako ikastetxetan, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, gaur egun ere garrantzi handia hartzen ari da.

Decrolyren helburu nagusietako bat eskola eta bizitzaren arteko harremana gehiago erlazionatzea zen, mundu erreal batean bizi behar du ikasleak eta bizitzarekin lotutako jarduerak burutu beharko ditu bere ikaskuntza-prozesua esanguratsua eta aberasgarria izateko (Agreda, 2005). Eskolak bizitzarako hezi behar du, eta modu horretan, pedagogia

honen xedea hiritarrak eratzea da, egunerokotasuneko esperientzietatik ikasteko. Aipatutako horretan egokitzen ari dira ikastetxeak ikasturtero eta bizitza errealeko egoeratik ikastea bilatzen dute ikasleak biziko duenerako prestatzeko.

Decrolyren metodologiak behaketan, esperimentazioan eta parte hartzean oinarritutako ikaskuntza aktiboa bultzatzen du, batez ere ikasgelatik kanpo lan egiten eta naturako inguru berriak ezagutzen. Azken hamarkada honetan, Espainiako eta batez ere, Euskal Herriko ikastetxe askotan, ikasgelatik kanpoko heziketari garrantzia ematen ari diote, ikasleen interesa nahiz motibazioa handituz eta naturako inguruneetan esperientzia berriak biziz. Horrekin lotuta, 2016. urtetik Ekogunea izeneko fundazioak bideratutako proiektua jarraitzen ari dira ikastetxe askotan, naturarekin erlazionatutako ikaskuntza bultzatzen duena eta natura dena ikasteko gunea haurren garapen integralean positiboki eragiteko. Decrolyk aipatutako jolas librea da ikasketa metodologia nagusia, haurrek ikasteko metodo naturalizat jotzen delako eta motibagarriena delako esparru ezezagunak aztertzeko.

Gaur egun bizi ari garen Covid-19 egoeraren ondorioz, ikastetxeek zailtasunei aurre egiteko beharra izan dute eta ikasturtea aurrera eramateko aldaketak egin behar izan dituzte, baso eskolak indartuz. Gipuzkoako 23 ikastetxek jarraitzen dute aurretik aipatutako proiektua, inguru naturalak ikasteko eremu berriak bihurtuz eta haurren ikaskuntza erakargarriagoa sortuz. Horren adibide daukagu Zaldibiako Lardizabal herri eskola: astean behin basora irteten dira esparru berriak ezagutzera beste modu batez ikasiz, eta ikastetxeko zuendariak elkarrizketa batean esan duen bezala, ikasleak zoriontsuago joaten dira etxetik, haien arteko harremanak hobetzen joan dira eta gehiago gozaten ari direla ikusten ari dira. Modu horretan, orain arte baso eskolen garapena begi onez ikusten dute eta lantzen diren edukiak curriculumean oinarritzen direnez, aukera paregabea ikusten dute proiektuarekin jarraitzeko (Zarandona, 2021).

Egoera antzekoa bizitzen ari dira Zurriola ikastetxeko ikasleek ikasturte honetan, astean behin mendira txangoa egiten hasi direla arrazoi ezberdinen ondorioz. Alde batetik, oso garrantzitsua ikusten dute hiriburu eta testuinguru urbanizatuetan bizi direnentzako inguru berriak ezagutzeko aukera dutelako; beste aldetik, mendira irtetea onura fisiko, psikiko eta emozionalak hobetu egiten dituelako, eta gaur egun haurren artean hain ezaguna den obesitatea ekiditzeko lagungarria da ikasleak etengabe mugimenduan egoten direlako. Horrez gain, harreman sozialak hobetzeko eta arau zibikoak errespetatzeko esperientzia bikaina bizitzen dute ikasleek, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez ikasiz eta naturaz gozatuz (Muriana, 2021).

Aurretik aipatutako antzeko eraldaketa ezberdinak bizitzen ari dira gaur egungo ikastetxetan sufritzen ari garen pandemiaren ondorioz, eta aire librean ikastera bideratu gaitu egungo egoerak. Argi dago baso eskolak aurrera eramateko gutxieneko prestakuntza beharrezkoa dela, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan *“Naturan hezi, orain da unea!”* izeneko online ikastaroa martxan jarri zen iaz, gorakadan doan ikaskuntza gehiago bultzatzeko eta honek dituen onurak ezagutzeko. Programa honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea du eta helburu nagusia natura ikasteko beste tresna bezala ulertzea da, (Sistiaga, 2020). Horrez gain, hain ezaguna den klima-larrialdiari aurre egiteko baliabide egokia dela aitortzen dute adituek, ikasleek honen inguruko kontzientzia gehiago izateko eta haien bizitzetan inpaktua izateko. “Garapen Jasangarrirako Helburuetarako Hezkuntza” txostenean, UNESCOk aipatzen dut esperientzia zuzenak bilatu behar direla, ikasleen arlo emozionala ukitzen dutenak, eta horretan saiatu behar gara guztion artean aldaketa klimatikoaren arazoari aurre egiteko.

Berria aldizkariko iritzi-artikulu batean, Jon Mikel Zubeldiak (2021), Bihotz Inguru haur baso eskolako kideak, gaur egungo hezkuntza-sistemaren inguruko hausnarketa kritikoa egiten du, aipatuz inposatuta ditugun lege eta eskema zaharkituekin zaila dela aurrera egitea eta orokorrean naturarekin kontaktua galtzen ari dugula. Hori dela eta, duela sei urte aire zabaleko pedagogia oinarri duten baso eskolak garatzen hasi dira, natura espazio hezigarri egokia dela baieztatuz eta motrizitatea garatzeko aukera paregabea dela aitortuz. Proiektu honetan badira bost hitz nabarmentzen direnak: autonomia, konfiantza, maitasuna, naturarekiko errespetua eta talde ikuspegia, ikaskuntzarako beharrezkoak direnak.

Azken hamarkada honetan, baso eskolen hazkundera ematen ari dela ikusi dugu, hainbat erakunde sortu dira haurren ikaskuntza prozesua naturarekin erlazioan egoteko eta adituek azpimarratu duten bezala, aukera ezin hobea da modu aktiboan ikasteko eta harremanak sendotzeko.

Hori dela eta, prestatutako proposamen-didaktikoa Sastarraingo baserri eskolan aurrera eramatea erabaki nuen, ikasleen elkarrizketatik abiatuta, bizipen berriak izango dituztelako eta naturatik ikasteko aukera ederra izango dutelako. Ohikoa ez den ingurunea bisitatzeko eta esperimentatzeko hiru eguneko txangoa prestatu dute ikasleek, baserriko guneak aztertzeko eta inguru horietatik lehen ez zuten ezagutza berriak izateko. Irteera ezberdina izanda, ikasleen motibazioa handiagoa izango da, eta interes hori aprobetxatu beharko da ekintza berriak bizitzeko eta gauza berriak aztertzeko (animaliak, landareria, natura-ingurua...). Haiek antolatutako jarduerak landuko dituztenez, bakoitzaren beharrak asetzeko eta hauetatik disfrutatuko aukera paregabea izango dute.

Decroly pedagogoak garatutako ideiak izan dira proposamenaren abiapuntu, eta ikasleen interesak eta beharrak kontuan izan dira jarduerak prestatzeko. Modu berean, elkarrizketa erreal batetik abiatu dira ikasleak baserri eskolara joateko, eta behaketa, parte hartze aktiboa, esperimentazioa eta jolasak izan dira nabarmendu diren ekintzak modu praktikoan ikasteko.

Laburbilduz, Decrolyk garatutako pedagogiak garrantzi handia izan zuen eta hezkuntza beste ikuspegi bat izateko lan handia egin zuen. Historian zehar, pedagogia honek herrialde askotan inpaktu handia izan zuen, eta ikusi dugun bezala, gaur egun ere ikastetxe askotan bere ideiak aurrera eramaten ari dira, ikasleen beharrak kontuan hartzen, naturari garrantzia ematen eta errealitateko egoeretatik aktiboki lan egiten. Beraz, esan dezakegu Decrolyk hezkuntza sailean izandako presentzia handia izan dela eta haurren ikaskuntza prozesua aberasgarria eta esanguratsua izateko ezaugarri oso interesgarriak garatu dituela.

## 6. ERREFERENTZIAK

- Agreda, M. L. A. (2005). Ovide-Jean Decroly, (1871-1932). *Pedagogo sortzaileak: teorien iturburu* (pp. 15-19). Xangorin.
- Bernet, J. T., García, E. C., Fairstein, G. A., Fernández, J. A. F., Molins, M. P., Monteagudo, J. G., ... & Mendiburu, I. V. (2001). *El legado pedagógico del siglo XX para la escuela del siglo XXI* (Vol. 159). Grao.
- Dubreucq-Choprix, F., & Fortuny, M. (1999). Ovide Decroly. *Correo pedagógico*, 5, 4-8.
- Decroly, O., Van Gorp, A., Simon, F., & Depaepe, M. (2006). *La función de globalización y la enseñanza, y otros ensayos* (pp. 69-107). Bibliotheca Nueva.
- Decroly, O., & Boon, G. (1921). *Vers l'école rénovée*. Office de Publicité.
- Decroly, O. (1934). Psicología aplicada a la educación. *Psicología aplicada a la educación* (pp. 278-278).
- Decroly, O. (1932). *El Doctor Decroly en Colombia*. Imprenta Nacional.
- Decroly, O., & Boon, G. (1965). Iniciación general al método.
- Decroly, O., & Monchamp, E. (1919). *La Iniciación a la actividad intelectual y motriz por los juegos educativos*. F. Beltrán.
- Ekogunea (d.g.) *Baso eskola*. 2021eko ekainaren 1ean hemendik berreskuratuta: <https://www.ekogunea.eus/eu/ekogunea/baso-eskola/3-56/>
- Gadotti, M. (2002). *Historia de las ideas pedagógicas*. Siglo XXI.
- García, M. I. R. (2011). El método de lecto-escritura global. *Revista Digital. Innovación y experiencias educativas*, N°39, 19.
- Muriana, G. (2021eko maiatzaren 29a). Ingurunea heziketa gune bihurtzen dute 15 ikastetxek astean behin. *EITB*. Hemendik berreskuratua: <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/bideoak/osoa/8086218/bideoa-ingurunea-h eziketa-gune-bihurtzen-dute-15-ikastetxek-astean-behin/>
- Narváez, E. (2006). Una mirada a la escuela nueva. *Educere*, 10(35), 629-636.
- Olalde Leoz, M. (2013). Hezkuntza sistema eztabaidatuz: berrikuntza curricularra eta lan-proiektuen metodologia.
- Palacios, J. (1999). *La cuestión escolar*. Fontamara.
- Patiño, A. G. R. (2007). La escuela para la vida y por la vida. El impacto de Ovidio Decroly en la pedagogía y la universidad colombiana. *Plumilla Educativa*, 4(1), 43-47.
- Sistiaga, M., (2020). *Naturan hezi, orain da unea!*. Hemendik berreskuratua <https://www.uik.eus/eu/node/2705/pdf> .
- Skidelsky, R. (1973). *La escuela progresiva: Abbotsholme, Summerhill, Gordonstoun*. A. Redondo.

- y Rodríguez, F. R. (1925). *El método Decroly*. Junta para Ampliación de Estudios e Investigaciones Científicas.
- Zarandona, Josune (2021eko otsailaren 5a). Natura ikasgela bihurtuta: *Goierriko Hitz*a. Berreskuratuta: <https://goierri.hitza.eus/2021/02/05/natura-ikasgela-bihurtuta/>
- Zubeldia, J. M. (2021eko martxoaren 5a). Uliako Bihotz Inguru haur baso eskola eta hezkuntza. *Berria*. Hemendik berreskuratua: <https://www.berria.eus/paperekoa/1896/006/002/2021-03-05/uliako-bihotz-inguru-haur-baso-eskola-eta-hezkuntza.htm>




## 7. ERANSKINAK

1.eranskina: Ibaiondo ikastetxea.



2.eranskina: ikasleek zuzendariari idatzitako baimen-orria.



3.eranskina: irteerako planifikazioa.


	<b>ASTELEHENA</b>	<b>ASTEARTEA</b>	<b>ASTEAZKENA</b>
<b>9:00</b>		Esnatu eta gosaldtu!	Esnatu eta gosaldtu!
<b>10:00</b>	Ikastetxetik autobusa hartu eta baserri-eskolarantz abiatu.	Mendira joateko motxila egin eta bazkaria hartu.	Baserriko zuhaitzekin eta animaliekin jolastu.
<b>11:30</b>	Baserri-eskolara iritsi, motxilak utzi eta arauak ulertu.	10:30etan mendira joan. Naturako animaliak eta landareak aztertu eta argazkiak atera.	Ogia eta gazta ekoitzi etxera eramateko.
<b>12:00</b>	Ingurunea ezagutu eta bertako objektu eta jolasekin jolastu.		
<b>14:00</b>	Bazkaltzera!	Bazkaltzera bokata mendian!	Bazkaltzera!
<b>16:00</b>	Baserriko animaliak ezagutzea eta jaten ematea.	Ekaingo kobazuloak ikusi.	Autobusa hartu eta ikastolara bueltatu.
<b>17:30</b>	Askaria	Baserri-eskolara bueltatu.	
<b>18:00</b>	Baratza ezagutu eta lagundu landatzen		
<b>19:30</b>	Dutxa!	Dutxa!	
<b>20:00</b>	Denbora librea!	Denbora librea!	
<b>21:00</b>	Afaldu	Afaldu	
<b>22:00</b>	Gaubela monitoreekin.	Gaubela moniotreekin.	
<b>23:00</b>	Lo egitera!	Lo egitera!	



4.eranskina: Sastarraingo baserri-eskola.



5.eranskina: Ekaingo kobazuloak eta margolanak.



6.eranskina: ebaluazio-orriak.

## (1) BASERRI-ESKOLAKO AUTOEBALUAZIOA 1/2

IZENA: .....

2021/05/12

**Ebaluatu ezazu zure jarrera eta parte-hartzea baserri-eskolako irteeran. Ondoren erantzun hurrengo galderei.**

**GU= gutxi NA=nahiko O=ongi OO=oso ongi**

	GU	NA	O	OO
Baserri-eskolan izan dudana jarrera ona izan da.				
Nire parte hartzea egindako jardueretan egokia izan da.				
Errespetuz jokatu dut naturako eremuan momentu osoan.				
Lagunak, irakaslea eta baserriko monitoreak errespetatu ditut eta kasu egin dut.				
Talde lanean gustura aritu naiz klasekideekin eta harreman ona izan dugu.				
Baserri-eskolako tailerretan parte hartze positiboa izan dut (baratzean landatzen, gazta egiten, animaliei jaten ematen...)				
Baserriko animaliak zaindu eta elikatzen eman diet.				
Baratzean landatzen lagundu dut eta eremua ondo zaindu dut.				
Gazta eta ogia egiteko tailerrean jarrera egokia izan dut eta ondo parte hartu dut eginbeharrak jarraituz.				
Gaubeletan parte hartze positiboa izan dut eta jardueretan inplikatu naiz lagunekin.				
Mendiko landaredia eta animaliak zaindu ditut eta errespetuz jokatu dut.				
Ekaingo kobazuloak errespetatu ditut eta modu egokian aritu naiz eremua aztertzen eta behatzen.				
Baserri-eskolako jarduerekin asko disfrutatu dut eta gauza asko ikasi ditut.				
Natura-inguruko landare eta animaliekin disfrutatu dut eta kontzeptu berriak ikasi ditut.				
Ekaingo kobazuloen bitxikeri eta ezaugarri berriak ikasi ditut.				
Taldekideekin ondo pasatu dut eta elkarrekin asko disfrutatu ditugu egindako jarduerak.				

## BASERRI-ESKOLAKO AUTOEBALUAZIOA 2/2

- Zer moduz sentitu zara baserri-eskolako giroan? Gustatu zaizu naturarekin erlazioan aritzea?

- 
- Zer izan da baserri-eskolan gehien harritu zaitudan gauza? Zergatik?

- 
- Zeintzuk dira baserrietik eta natura-ingurutik ikasi dituzun kontzeptu berriak?

- 
- Zeintzuk dira baserri-eskolan ikusi dituzun animaliak eta landareak?

- 
- Zeintzuk dira baratzean landatu dituzun elikagaiak? Labur azaldu landatzeko prozesua.

- 
- Zer ikusi duzue Ekaingo kobazuloetan? Aipatu tokiko bitxikeri edo ezaugarri batzuk.

- 
- Bizitako esperientziatik zeintzuk izan dira gehien gustatutako jarduerak? Eta gutxien?

- 
- Uste duzu baserri-eskola batean ikastea ikaskuntza aberasgarriagoa eta motibagarriagoa dela? Gustatuko litzazuke baserri batean ikastea? Zergatik?


---

→ OHARRAK (IDATZI NAHI DUZUNA): \_\_\_\_\_

Sekuentzia didaktikoan zehar egindako jarduera eta parte hartzea baloratzeko momentua da!

Bete ezazu hurrengo galdetegia!

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSeEkaqLFoeUr0Bt7Xqu3sy2VtiAPzbuDs10YtTwlPFejG37Q/viewform>



**SEKUENTZIA DIDAKTIKOKO  
AUTOEBALUAZIOA**

Kaixo! Sekuentzia didaktikoarekin amaitzeko, azken autoebaluazioa bete beharko duzu klasean eta baserri-eskolan egindakoaz hausnartzeko eta balorazioa egiteko!

**\*Obligatorio**

Ikaslearen izena \*

Tu respuesta

**NIRE JARRERA KLASEAN IRTEERA PRESTATZEN \***


Gutxi      Hobetu beharra      Ondo      Oso ondo

Ikasleen iritziak



7.eranskina: ikasleek egindako albuma argazki eta hausnarketekin.

**BASERRI  
ESKOLA**



**IBAIONDO IKASTOLA  
2020 - 2021**

**BASERRI-ESKOLA**

Ikusten den argazki horrietan  
Saslaroaingo baso-eskola ikusten  
dugu. Hor- egan gara hiru egun  
animaliak, landareak eta naturak  
elementuak ikusten. Leku oso  
politak da eta oso gustora  
egan gara klasako guretik.

Niri asko gustatu zait  
animaliekin jolostea eta  
jaten ematea. Behien gustatu  
zaidan animalia ZALDIA izan  
da. Burria eta oso polita da



**ANIMALIAK**

Baserrri eskolan animalia asko  
ikusi ditugu: zaldiak, orloak,  
zaldiak, burriak, txakurrak.  
Jaten eman diegu eta Mikeli  
ia ia zaldiak korrika egin zituen.  
Behien gustatu zaidema izan da  
txakurroekin jolostea bakoiekin.





# EKAINGO KOBAZULOAK



## KOBAZULOAK

Asteartean Ekaingo kobazuloak ikusi genituen. Duela urte askoko kobak ziren eta marrazki asko kontrabatuak ziren.

Zaldien marrazki asko zirela eta marritoreak esan zuenagatik lehen ZALDIAREN SANTUEGIA zen.

Abuntzak eta haritzak ere zirela. Guztira 70 marrazki dauzke eta ezin ziren urkitu errezepetitako.

Oso buxuta polita izan zen eta guzua asko ikusi genituen.

